# ttipi ttapa

302



## Erreka elkarteak 25 urte bete ditu 04

Malerrekako kirol elkarte handienak mende laurdena bete du. Hori ospatzeko ekitaldi bereziak antolatu ditu 178 bazkide dituen Doneztebeko soziedadeak.



## Shisha Pangma espedizioak huts 25

Eguraldi kaxkarra zela eta, 8.027 metrotan dagoen gailurra zanpatu gabe bueltatu dira etxera Bortziretako Shisha Pangma Martiko espedizioko kideak.

2001eko maiatzak 17 • XXI. urtea



# 03 Bizitza osoa Elizondoko Abesbatzari emana

Heldu den urtean hiruretan hogei urte eginen du Juanito Eraso abesbatzako zuzendaria dela


SANPI ARAGONek berize tailer bat ireki du ALKAIAGAn
Orain martxan
txapa eta pintura
zerbitzu berria
ZOAN SA
Volkswagen zerbitzu ofiziala
Banarta, 2 • Alkaiaga industrialdea • LESAKA • Sarrera Beratik • 948 625 555
Auto marka guzien konponketa • Seat, Audi, Volkswagen markatan espezializatuak
Txapa, pintura, mekanika eta elektrizitatea • Pre-ITV • Direkzio zuzentzeak eta orekatzeak


MUEBLES AMETS
Sarrera BERAtik da
Alkaiagako industrialdean
Sastrin karrika, 3.2 - 3.4
31789 LESAKA
Tfnoa. 948 630 537
Fax. 948 631 443
Sukaldeak
Egongelak
Logelak
Bainugelak
4.000 m²-ko
erakusketa
mobileak ikusteko
Larunbat arratsaldetan irekia

ELKARRIZKETA

## DATUAK...

- 1914ko Otsailaren 21 ean Areson sortu zen Juan Eraso, Elizondoko abesbatzaren zuzendaria.
- Bere memoriak argitaratzea gustatuko litzaioke, dirurik balu norbait kontratatuko luke lana egiteko, baina ez lituzke berak idatziko bere buruari gehiegi esigitzen diolako.
- Bere iritziz euskaraz badaki defenditzeko, baina nahiago luke atakatzeko jakitea.



**Juanito ERASO** *Elizondoko Abesbatzaren zuzendaria*

# «Hurrengo urtean hiruretan hogei eginen du zuzendari naizela»

Rakel Goñi

**Noiz hasi zinen musika ikasten?**
Bizi guztian lan hori egin dut, beno lana...lana da nekez egiten dena eta nik gustora egin dudanez erran daiteke denborapasa izan dela. Sei urte nituela zerbait banekien, ahots polita banuen eta etxean autsita zegoen pianoarekin jolasten ibiltzen nintzen akordeak ikasi nituen arte. 19 urtetan gizon ahots ederra jarri zitzaidan eta sari bat irabazi nuen Andoainen. Geroago Iruñeako musika eskolan 20 urte irakasten pasa nituen. Oraindik ere garai hartako ikasleak etortzen zaizkit klaseak hartzera. Madrilen ere 4 urtez egon nintzen abesbatzak zuzentzen ikasten.

**Noiz bihurtzen zara Elizondoko abesbatzaren zuzendaria?**
1942.an hasi nintzen beraz hurrengo urtean 60 beteko ditut zuzendari naizela. Garai batean ostiralero joaten nintzen eta egia erran talde ederra osatu genuen. Gaur egun osasunak eta adinak ez baitute barkatzen gero eta guttiago joan naiteke Elizondora.

> «Belarri txarreko jende aunitz izan dut baina oso burugogorra naizenez gehienei erakutsi diet abesten»

**Zein herrialdetan egon zara abesbatzarekin?**
Pilaka dira bisitatu ditugun herrialdeak, lehiaketetara edonora joaten ginen. Tokirik arraroena Hegoafrika, Johanesburgo, izan daiteke, orain ez da hain berezia baina garai hartan bai. Frantzian, Inglaterran, Erroman, hainbat toki ezagutu dugu. Gehien gogoratzen dudana Gales da han irabazi genuelako Llangollenen lehendabiziko saria 1952an. Dena den Mexikora ez joateak pena ematen dit Baztandar ugari dagoelako han.

**Asko kostatzen da petsona bati kantatzen erakustea?**
Bakoitzaren araberakoa da, batzuekin ia ezinezkoa da karrerarik egitea bertzeak ordea, dohai bereziak dituztenekin lan guttiago egin behar da. Nik uste dut abeslaria sortzen dela eta gero ikasi beharra duela, ahotsa landu behar da. "Belarri txarreko" jende aunitz izan dut baina oso burugogorra naizenez ia gehienei erakutsi diet abesten. Genio txarrekoa naizela diote baina era berean pazientzia haundia daukat.

**Non bizi nahiko zenuke?**
Elizondon egon nahiko nuke nire bizia herri horren iguruan egin dudalako, halere lagun asko falta ditut eta pena ematen dit askotan Elizondora joatean nire lagunak zirenak ez daudela ikustean. Angelun oso ongi bizi naiz, oso lasai eta ongi atenditua nago hemen.

**Zure lana jarraituko duen norbait egotea nahiko zenuke?**
Noski baietz, asko poztuko nintzateke nire ordezkoa egongo balitz, Isabel Lakar Lesakarraren lana adibidez aunitz gustatzen zait. Bizian zehar jende aunitz aurkitu dut lan honetarako, abesbatzak zuzentzeko balio zuena, baina azkenean nik ez dakizkidan arrazoiengatik aspertu eta utzi egin dute.



**Doneztebeko Erreka Kirol taldeak hogeitabosgarren urteurrena ospatzen ari da aurten. Horretarako, urtero egiten dituen ekitaldiekin batera, aurten bertze bereziak ere prestatuko ditu. Apirilaren 28an mendi bizikleta ibilaldia egin zen hirugarren urtez eta gizasemeen paleta-goma txapelketa ere abiatu da, zazpigarren aldiz. Ekainean txirrindularitza, krosa eta eskubaloiarekin lotutako ekitaldi bereziak antolatuko dituzte. Hogeita bortz urte hauen balantzea egin, aurtengoan prestatutako ekitaldien berri jakin eta etorkizunerako dituzten asmoak ezagutzeko zuzendaritza batzordeko hiru kiderengana jo dugu: Pedro Bañares lehendakaria, Joxe Irigoien idazkaria eta Patxiku Ganboa, eskubaloi bokaliako arduraduna.**



Joxe Irigoien, Pedro Bañares eta Patxiku Ganboa, gaur egun Erreka elkarteko zuzendaritza batzordeko kideak. Beheitian, duela hamar denboraldiko eskubaloi talde nagusia.

## ERREKA ELKARTEAREN 25. URTEURRENA

# Mende laurdena bete du aurten Malerrekako kirol elkarte nagusiak

**Aitor AROTZENA**

Aurtengoan, hogeita bosgarren urteurreneko ekitaldiak prestatzeko aurrekontu berezia izanen du 178 bazkide dituen Erreka elkarteak, normalean baino bi milioi gehiago. Guzira, 6.190.000 pezeta ingurukoa da. Ekainean hasiko dira lehendabiziko ekitaldi bereziak. Pedro Bañares lehendakariak aderazi digun bezala: *«Ekainaren 2an Nafarroako Txirrindularitza Itzuliarekin hasiko gara, 3an izanen da krosa, gero 9 eta 10ean Euskal Herriko eskubaloi txapelketa jokatuko da. Udan atsedenaldia hartuko dugu eta urrian bertze ekitaldiak eginen ditugu».*

Kirol jardunaldi guzi horien artean, akaso, Euskal Herriko eskubaloi txapelketa izanen da bereziena. Errekan, eskubaloi bokaliaren arduradun den Patxiku Ganboak eman digu txapelketa horren berri: *«Txapelketa hau urtero egiten da eta kadete eta gazte mailako Nafarroa, Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiako neska eta mutilen selekzioak biltzen dira. Euskal Herriko Jolas hauek aurten Doneztebeko kiroldegian jokatuko dira, Errekaren 25 urteurrena dela aprobetxatuz».*

Aurtengo futbito txapelketako finalistek, txapelketako selekzioak eta Ohorezko Mailan ari den MRA-Xota Nafarroako taldearen artean jokatu beharreko norgehiagokak bertze, aldera gibeleratu egin dira.

**Eskubaloiaz gain, bertze kirol aunitz hartu ditu bere gain**

Hogeita bortz urte joan dira Erreka elkartea sortu zenetik. Denbora honetan, eskubaloi taldea izan da e-

kartearen ezaugarririk nagusiena. Baina bertze kirolek ere lekua hartu dute Errekak prestatzen duen egitarauan. Emakumezkoen nahiz gizonezkoen pala txapelketak, Baztan-Errekako futbito txapelketak eta krosak, adibidez, eskualde guziko kirolariak biltzen dituzte. Hauek bizi berria eman diote Errekari. Patxiku Ganboaren ustez: *«Haseran eskubaloia bertzerik ez zen eta poliki-poliki gauza gehiago biltzen joan gara eta momentu honetan ekintza pila bat daude. Horrek lan aunitz suposatzen du, baina bertze aldetik bizitza handia eta mugimendua ematen du elkartean. Hor sartuko nituzke pala txapelketak, futbito txapelketa eta egiten diren bertze ekitaldiak, mendi ateraldiak...»*.

Gehien bat Doneztebeko kirolariak biltzen ditu Erreka taldeak, baina Malerreka eta inguruko kirolzaleek ere ateak zabalik dituzte, Ganboak dioenez. *«Guk argi daukagu Erreka Doneztebe eta inguruko jende guziari irekia dagoela. Eskubaloian, maila gutxitan Malerrekako jendea dabil, baita Elizondokoak ere. Malerreka osoan kirola mugitzen duen elkarte bakarra da Erreka, beraz argi dago kirola egin edo kirola bizi nahi duenak Errekarekin harremanean jartzen ahal dela eta hori dela, beharbada, kirolean aritzeko modurik errexena»*.

## ETORKIZUNA PRESTATZEN

# *Errekaren etorkizuna segurtatzen dute ttikien taldeek*

Gaur egun, infantil mailako neska-mutikoek, kadete mailako neskek eta jubenil mailako mutilek osatzen dute Erreka taldea. Formakuntza lan hori ere nahitaezkoa izanen da eskubaloiak etorkizuna izan dezan, Joxe Irigoienen ustez: *«Aurten jendeaz juxtuxko ibili gara, baina badirelarik infantilak, kadeteak, jubenilak, horrek erran nahi du goitira ailegatuko direla. Baina noski, gogoekin hartu behar dute, ezin da lepotik hartu eta ekipoan sartu. Nik pentsatzen dut etorkizuna badela eta urte pare batez juxtu xamar ibili arren, gero segituko dutela»*.









Arkiv AROTZENA

**Goitik beheiti, mutiko eta neska infantilak, neska kadeteak eta mutiko jubenilak. Eskubaloiaren etorkizuna esku onetan dago.**




## Pedro BAÑARES *Errekako lehendakaria*

# *"Duela 25 urteko intentzioa errealitate bihurtu dela ikustea pozgarria da"*

**Hogeita bortz urte bete ditu Errekak. Aitzinera begira asmo berririk?**

Intentzioa beti da aitzinera segitzea eta gauza berriak egitea, baina horretarako, nere ustez, jendea aldatu behar da. Guk bortz urte eginen dugu eta gure lana egin dugula uste dugu. Orduan, kanpotik jende gehiago sartu behar da, ideia berriekin eta lanerako gogo berriekin. Badira gauzak egin beharrak eta bada jende gaztea lan aunitz egiten ahal duena. Seme-alabak dituzten guratso gazteak badira eta lanean hasi behar dute, bere seme-alabengatik bertzerik ez bada. Eurek ez badute egiten, nork egin behar du? Bertzeek ahal duguna eginen dugu.

**Zer izan da Erreka elkartea zuretzat?**

Neretzat gauza berezia da Erreka elkartea. Bertze batzuekin, duela 25 urte talde sortzailean izan nintzen. Gure orduko intentzioa errealitatea bihurtu dela eta 25 urte bete dituela ikustea handia eta pozgarria da, horregatik gustatuko litzaidake aintzinera segitzea. Norekin ez dakit, baina segitzea.

**ttipi-ttapa**
HAMABOSTEKARIA

**Lege Gordailua:** NA-1324/85
**Frankeo Itundua:** 34/79
**Tirada:** 7.100 ale

**ttipi-ttapa aldizkaria**
Herriko Etxeko Plaza, 1
E-31780 BERA (Nafarroa)
Tlfnoa:(+34) 948 63 11 88
Faxa:(+34) 948 63 12 91

**www.topagunea.com/ttipi-ttapa**
**ttipi-ttapa@topagunea.com**

**Jabea:** ttipi-ttapa fundazioa. **Presidentea:** Pello Apezetxea. **Kudeatzailea:** Josemanuel Irigoien. **Zuzendaria:** Aitor Arotzena. **Publizitatea:** Kulturkari, S.L. **Administrazioa:** Amaia Goia. **Erredakzioa:** Aitor Arotzena, Asier Gogortza. **Berriemaileak:** Joseba Azpiroz, Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Iban Isasi, Patxi Iriarte, Jasone Otxandorena, Aitba Fernandez, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Juan Carlos Mortalena, Ana Mari Etxeberri, Frederick Berruet, Elixabet Iturria, Garbiñe Maiz, Oskar Txoperena, Joseba Olagarai, Nerea Mitxelorena, Aitor Arotzena, Asier Gogortza.
**Kolaboratzaileak:** EHNE Nafarroa, Rakel Amigo, Euskal Herriko Kontsumitzaileen Antolakunde...
**Inprimategia:** Gertu. **Erakunde Laguntzaileak:** Bera, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi eta Sarako udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkartea, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea, Zugarramurdiko Akelarre Elkartea...

**Harpidetza sariak:**

| | |
|---|---|
| Hego Euskal Herria | 2.400 Pta. |
| Ipar Euskal Herria | 180 Libera |
| Europa | 4.600 Pta. |
| Amerika | 16.500 Pta. |

**Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du**

• GAURKOTASUNEKO GAIA •

# Zaborrak nola banatu

## Baztanen zailagoa eginen zaie zakarrak banatzen hastea

**Ramoni Olaziregi** *Mankomunitateko Administraria*

Bortzirietan informazioa azaltzen duten triptikoak banatzen ari gara oraindik. Jendeak ez zeukan argi kontenedore berrietan zer zen bota beharrekoa eta deika aritu dira zalantzak argitzeko. Pentsatzen dut Baztanen zailagoa izango dela zakarrak banatzen hastea, orain arte beira bakarrik biltzen baitzen birziklatzeko. Han mentalizatzen hasi beharko dute gainontzeko tokietan egin den bezala, uste dut pixkanaka ohituratuko direla. Bortzirietan aspaldidanik zegoen papera biltzeko zerbitzua eta beraz ontzi arinen kontenedorea (horia), etxeko olio bilketa eta tamaina handiko hondakinen bilketa izanen dira berrikuntzak. Azken honetan sortu dira zalantzak, jendeak ez zekien deitu behar zen ala ez, nora deitu behar zen. Guzti hau banatu ditugun triptikoekin argituko dela uste dugu. Etxeetan ere askok toki arazoak dituzte kuboak jartzeko. Kontutan hartu behar da papera, ontzi arinak, beira, pilak eta zakarra [illegible]korrean banatu behar direla eta askotan poltsa bakarra dagoela. Esfortzu berezia egin beharko dute batzuk. Dena den jendea nahiko mentalizatua dago jadanik birziklaiarekin eta ongi erantzungo dutela uste dut. Aipatu bezala Bortzirietan laster etxeko olioa bilduko da. Honetarako data zehatzetan furgoneta batzuk pasako dira herriz herri bilketa egiten. Olio horiek orain arte harraskatik behera edo zakarrontzira zuzenean botatzen genituen eta izugarri kutsatzen zuten, batez ere erreka eta itsasoetara [illegible]ten zirenean. Behin olioak erabili direnean elkarrekin nahasi daitezke birziklatzera eramateko, prozesu batzuen ondotik bio-erregaiak eta garbikariak egiteko erabiliko dira.
Bi kanpainak elkarrekin egin nahi genituen, kontenedore berriena eta etxeko olioarena, baina ezinezkoa izan zaigu. Errazago ulertuko litzateke dena batera egin ahal izan bagenu, norbaitek dudaren bat edukiko balu badaki Bortzirietako Hiri Hondakinen Mankomunitatean laguntzeko gaudela eta nahi izanez gero deitu dezakela informazioa eskatzeko.



## Hiriburukoekin alderatuz nahiko atzeratuak genbiltzan

**Juana Mª Barberena** *Erratzu*

Arront ongi iruditzen zait kontenedore berriak ezartzea, beharrezkoak ziren zabor guztiak toki berera botatzen genituelako. Nik Elizondoko zahar etxean egiten dut lan sukaldari bezala eta hasieran harritu gintuen hainbertze kontenedore jarri izana baina gero konturatu ginen mentalizatzea beharrezkoa dela eta nolabait ere moldatu gara zaborra banatzeko. Poltsak maiz husten saiatzen gara zaborrak ez pilatzeko. Etxean agian zailagoa da kubo bat baino gehiago izatea, tokia urriagoa da, dena den guztia ohituratzea da. Geuk lehen Iruñera eramaten genituen pilak eta papera, hiriburukoekin alderatuz nahiko atzeratuak genbiltzan.
Nere ustez adinekoei kostako zaie zabor banaketa egitea, baina izanen dira ere zenbait gazte alferkeriarengatik dena kontenedore berera botako dutenak. Informazioa egon badago orain guri dagokigu gaiarekin mentalizatzea.



## Arreta pixka bat izan behar da zakarrak banatzeko

**Carmen Olaetxea** *Doneztebe*

Donezteben jendeak kontenedore urdinetan denetatik botatzen du. Ez dakit konfunditzen diren edo axolagabeak diren baina nahiko desmadrea da, kristala ere batzutan urdinetan botatzen da. Tapa duten kontenedoreak dira eta bertan dena nahasten dute. Agian modeloa aldatu beharko lukete eta aho estuago bat jarri papera bakarrik sartzeko. Askok kajak tolestu gabe sartzen dituzte eta gutxi irauten du hutsik. Guk adibidez beira banatzen dugu eta kajak ere egiten ditugu, bertzeak ez ditugu banatzen ez baita nora bota. Kontenedore horrik oraindik ez dago hemen baina beharrezkoak dira. Arreta pixka bat izan behar da zakarrak banatzeko baina nik uste dut aisa egiten dela, nire etxean moldatuko nintzateke, gogoa izan behar da, besterik ez. Informazioaren aldetik denok jaso egin dugu baina uste dut etxeetara ez dela oraindik iritsi.

## • PRENTSATIK BILDUTAKOAK •



Argia 01eko maiatzaren 6a

*«Orain dela gutxi osatu da Eskutik, pilotarien sindikatua, eta hori oso garrantzitsua da. Orain arte ez zen horrelako ezer bakoitza bere aldetik zebilen. Debutatzen duen gazteak gutxieneko soldata bat ezartzea eta gizarte segurantza lortzea ditu helburuen artean Eskutik-ek».*

Aser OLAIZOLA
Goizuetako pilotaria
Argia 01-05-06

*«Euskarak Nafarroan bizi duen egoera ez da batere xamurra, agintariek ez digutelako gure bizimodua aurrera eramaten uzten. Eremu euskaldunekoa izanda, nik ez dut hainbeste arazorik somatu, baina eremu mistoan arazo larriak daude eta erdaldunean euskaldunak erabat baztertuta daue. Sanzek eskubideak kendu nahi dizkigu.»*

Kristina URRUTIA
Leitzako kazetaria
Gaztetxulo 01-05-04

*«Amaiurko hilerriko bidea baselizaren parean arras estua da eta ibilgailu handiak eta kamioiak ia ezin dira pasatu.» «Aurten hilerriaren konponketa hasi dugu, baseliza hurrengo urtean.»*

*Beñardo AMIANO*
*Amaiurko juradoa*
*D.Navarra 01-05-03*

## • 11 GALDERA LABUR •



### Dabid Bidaurre *Urdazubiko Sukaldaria*

- **Bestetan lanean arituko al zara?**
  Bai, egunero.
- **Diskotekak ala plazako musika?**
  Tabernetako musika gustatzen zait, bakarlariak batez ere, Petti edo Xabaltx adibidez.
- **Eta musika taldeen artean zein duzu gustokoen?**
  Santana, S.A., Vagas Blues Band...ah! mexikanak eta txarangak baita ere.
- **Besta gauez ala egunez?**
  Arratsaldeko besta gustatzen zait.
- **Bestondoa pasatzeko metodoa?**
  Lo egin aurretik bi aspirina hartu.
- **Zerk jartzen zaitu lanean urduri?**
  Platera prestatu duzunean bezeroak ideiaz aldatzen duenean.
- **Iparraldea ala Hegoaldea nahiago duzu?**
  Iparraldean badaude gauza polituagoak baina niri hegoaldeak tiratzen dit.
- **Urdazubitik kanpo non biziko zinateke?**
  Berriki Las Vegas eta Tijuanan egon naiz eta toki egokiak dira bizitzeko.
- **Las Vegas-en diru asko gastatu zenuen kasinoetan?**
  200$ bakarrik gastatu nituen, kontuz ibili behar da kasinoetan diru aunitz galdu dezakezu.
- **Zinegotzia zara, alkate izanez gero zer eginen zenuke herrian?**
  Beno orain gehiena egiten saiatzen ari gara, frontoia tokiz aldatu eta herritarrentzako egoitza bat egin.
- **Otsondotik pasako zen autobidea beharrezkoa al da?**
  Ez. Irungo pasabidetik sobera hurbil gaude, autobidea egitekotan Luzaidetik izanen da.

Lanchas
• Parketak - Tarimak
• Kutxillatzea eta bernizatzeak
• Estaldura orokorrak
Bera ✆ 948630735

ZALAIN
JATETXEA
EGUNEKO MENUA ETA KARTA
Zalain Auzoa
✆ 948631106
BERA
Boda eta banketeak ematen dira

LABE ZAR
✆ 948631076 • BERA

TOLDOAK SALMENTA-KONPONKETA-ALOKAIRUA-ERROTULAZIOA
Eguzkitik babestekoak (elektriko edo eskuzkoak) • Toldo mugikorrak • Igerilekuetako sareak • Kamioentzako toldoak • Estutzeko uhalak • Aluminio, PVC, Egurra eta Seguridadekoak • Motorizatuak pertsianak altxatu eta jausteko • Kontraleihoak • Estoreak • Eulien kontrakoak...
☎ 948 63 10 03
Fax: 948 63 10 03
Alkaiaga Ind.•Baldrun, 8 • LESAKA - BERA
PERTSIANAK
ERA GUZIETAKOAK, MOTORIZATUAK, ESTOREAK

E D A R I A K
MANUEL TABERNA S.L.
Bidasoa K / 82 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.- Fax: 948. 63 10 27

HONDAKINAK

# Bortzirietan etxeko olioaren bilketa eginen da birziklatzeko

## Bio-erregaiak eta garbikariak egiteko balioko du olioak

Rakel GOÑI

### ETXEKO OLIOAREN BILKETA BORTZIRIETAN



| | Otsaila, Apirila, Ekaina, Abuztua, Urria eta Abendua | | Urtarrila, Martxoa, Maiatza, Uztaila, Iraila eta Azaroa | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | BERA | ETXALAR | LESAKA | IGANTZI | ARANTZA |
| Tokia | Iamotenea | Plaza | Plaza | Plaza | Plaza |
| Ordua | 9-12 | 13-14 | 9-12 | 13-14 | 13-14 |

Hilabeteko lehen ortzegunetan

Bortzirietako Hiri Hondakinen Mankomunitateak birziklatze kanpaina berria martxan jarriko du ekainean. Sukaldean erabilitako olioa birziklatzea da helburua, sortzen duen kutsadura galerazteko eta errekara eta itsasora iritsi ez dadin. Orain arte etxeko olioa zakarretara edo tuberietatik botatzea zen irteera bakarra, hemendik aintzin bortziritarrek zerbitzu berri hau izanen dute bi hilabetez behin. Etxeetan olioa edozein ontzitan bildu beharko da, ondotik adierazitako tokira eraman eta han arduradun batek birziklatzera eramanen du. Bilketa egunak hilabete bakoitzeko lehen ortzegunetan izanen dira, besta eguna tokatuko balitz bigarren ortzegunean pasako dira. Hilabete pareetan Beran eta Etxalarren eta hilabete ez pareetan Arantza, Igantzi eta Lesakan eginen da bilketa. Olioa birziklatzera eramaten duen orori xaboi pastilla bat oparituko zaio, olio hauek prozesu baten ondotik garbikariak eta bio erregaiak egiteko erabiliko baitira.

### *Bio-diesela eta garbikariak*

ECOGRAS enpresa arduratuko da bilketaz eta aipatutako datetan herriz herri pasako dira furgonetarekin olioa biltzera, eguneko 50.000 pezeta, BEZ-a kanpo, kostako zaio Mankomunitateari zerbitzu hau, beraz aurrekontu orokorra urteko 696.000 pezetakoa izanen da BEZ-a barne. Orain arte Bera eta Etxalarko jatetxeen olio erabiliak ziren biltzen zituzten bakarrak.

Lortutako olioarekin batez ere bio-erregaiak sortuko dira. Bionor proiektuaren barnean ECOGRAS-ek Biodiesela produzituko du, erregai hau ohiko diesela bezalakoa da baina bere konposizioan ez du sufrerik eta karbono kopurua askoz urriagoa da, energia berriztagarria izanik ez du ia kutsadurarik sortzen. Ehuneko 98an biodegradagarria da eta nahi den kantitatean ohiko dieselarekin nahasi daiteke. Biodieselaren prezioa ere orain artekoa bezalakoa izanen da eta hasierako prozesu honetan garraiobide publikoen enpresei eskeiniko zaie Euskal Autonomi Elkartean eta Nafarroan. Hilabeteko milioi bat litro biodiesel produzitu nahi dituzte, zerbitzua finkatu ahala erregai kopurua handitzen joateko, halere ECOGRASen helburua ez da izanen partikularrei diesela saltzea.

KULTURA

### *Bertizko Jaurerria Margo lehiaketan 200 partehartzaile inguru*

Ia 200 margolari parte hartuko dute Nafar Gobernuak antolaturiko Bertizko Jaurerriaren margo lehiaketan. 3 milioiko sari bakarra izanen da eta irailean jakinen da zein den irabazlea. Lehiaketan hasierako hautaketa bat eginen dute maiatzaren amaierarako Ingurugiro, Lurraldearen antolamendua eta Etxebizitza kontseilariak hautaturiko 8 adituek. Juradoaren presidentea Nafarroako Museoaren zuzendaria izanen da. Uztailan eta abuztuan margo hauek ikusgai izanen dira Bertizko Jaurerrian, erakusketa ikustera joaten direnek ere gustokoena duten margoa aukeratu ahal izanen dute eta epaimahaiaren botoei gehituko zaio kudegoarena. Behin saria aditzera emanen denean irabazlearen lana Nafarroako Gobernuaren esku geldituko da. Saria, Nafarroan emanen den handiena izanen da.

ZUBIONDO JATETXEA
Alasta karrika
BERA NAFARROA
TLF 948 625 472
sagardotegia jatetxea sagardotegia

bortzIRUDI
BERA
FOTOKOPIAK
ENKOADERNAZIOAK
PLASTIFIKAZIOAK
FAXA - E-MAILA
SKANNERRA
PAPERTEGIA
ARGAZKI MUNTAIAK
DISEINU GRAFIKOA
INPRENTA LANAK
SERIGRAFIA
ERROTULOAK
PUBLIZITATEA
Eztegara 26 behea
Tel.- Faxa: 948 63 15 21

Alberto RETEGI
abokatua
Altzate 17
BERA
948 630 763

Iriarte-Echandi, S.L.
• Aholkularitza
• Artekaritza
• Aseguruak
Kanttonberri 1 • BERA • Tel eta Faxa: 948 631169

SAROBE
okindegia
SANDERS Pentsuak
Eztegara 41, Tfnoa: 948 630 884 - BERA

BERA

# Igande honetan eginen da Berako V. Mendi Itzulia

## Partehartzaileek 30 kilometro eginen dituzte herriko mendietan barna

Asier GOGORTZA

Maiatzaren 20an eginen da bosgarren Berako Itzulia, herriko eta kanpoko hainbat mendizale biltzen dituen hitzordua. Goizeko 7ak eta 8ak bitarte abiatuko dira mendizaleak Agerra auzotik Santa Barbara aldera. Labiagan barna Lizuniaga aldera joko dute gero. Han jan-edatekoak izanen dituzte indarrak berritzeko, ondotik Laruneraino goitu beharko dute eta. Larunetik usategi aldera eginen dute eta gero Ibardineta 7. mugarritik jautsiz Agerrako Mendi Taldearen elkartera itzuliko dira. Denetara 6-8 ordu bitarteko ibilbidea kalkulatzen dute antolatzaileek.



Foto: Pirineos

**Shisha Pangmako espedizioa Katmandun. Eguraldi txarra dela eta ezin izan dute 8.027 metroko mendi hortara goitu. Hainbat egun eman dituzte Oinarrizko Kanpamenduan zerura begira, bainan eguraldiak bere aurpegi kaxkarrena erakutsi die mendizaleei, eta azkenean etsi behar izan dute. Dena den, mendia ez dela handik mugituko aipatu dute herrira itzuli bezain laster, eta aukera dutenean berriz joanen direla.**

## Mugaz Gain

### *Maiatzaren 17 eta 18an izanen dira Berako Lehen Hezkuntzako ikasleen antzerki emanaldiak*

Ortzegun eta ortziral tonetan eginen dira Mugaz Gain antzerki jardunaldietako azken saioak. Bera eta Lesakako eskoletako haurrek 5 antzezlan desberdin taularatuko dituzte. Goizetan ikasleentzat bakarrik izanen dira emankizunak, bainan arratsaldean nornahi joaten ahalko da Kultur Etxera antzerkilari gazteak ikustera.

Honako hau da egitaraua: ortzegunean, arratsaldeko 6,30etan, Ricardo Barojako talde batek "Fantasiak" lana aurkeztuko du, ondotik Labiaga Ikastolakoek "Jostailu Bizidunak" izenekoa antzeztuko dute eta azkenik eskola guzietako ikasleak biltzen dituen Antzeko Parezido taldearen emanaldia izanen da. Bihar, berriz, Ricardo Baroja eta Jesusen Bihotza ikastetxeko Lehen Hezkuntzako ikasleek elkarrekin prestatu duten "Oihanaren Amasa" antzezlana taularatuko da arratsaldeko 6,30etan, eta 8,30etan Antzeko Parezido taldeak bezperakoa errepikatuko du. Antzerkien artean Toki Onakoek egindako bideoak egonen dira ikusgai.

## FLASH

### *Maestus*

Maestus soka laukoteak maiatzaren 26an joko du Kultur Etxean, arratseko 8etatik aitzinera. Berako musika eskolako bibolin irakaslea den Maider Aizpuruak bertze hiru lagunekin batera osatzen du Maestus taldea. Ganbara musika egiten dute, eta euren errepertorioan pieza klasikoak (klasizismo eta erromantizismo garaikoak) nahiz musika arina eta folka nahasten dituzte.

### *Sutea kiroldegi barnean*

Joan den maiatzaren 6an, igandean, kiroldegiko bulegoan dagoen argien koadroak su hartu zuen eta bulego guzia erre zuen. Hala ere sua ez zen kiroldegiko bertze gelatara zabaldu bulegoko ateak itxiak zirelako. Arduradunek adierazi digutenez kalte larriak egin ditu suak, bainan aste honetan bertan argia jarriko dute eta normaltasunez lanean segitzeko asmoa dute.

### *Medikuntza alternatiboari buruzko hitzaldia*

Eneko Iandaburu higienistak hitzaldia emanen du maiatzaren 25ean Iamotenean. Botiken arriskuez ariko da eta horiek gabe norbere burua zaintzearen garrantziaz. Arratsaldeko 7etan hasiko da. Antolatzaile: Bortzirietako Lagunen Taldea.

Javier Manterola
TEKNIKO INSTALATZAILEA
ura • gasa • kalefakzioa
Tfnoa: 948 630 031 • BERA

IXIONE-GOZOTEGIA
Altzate, 19•948630786•BERA

ALZURI
• Sukalde tresneria eta opariak
• Landare eta loreak
Tel.: 948 630 370 • BERA

BAR Botxo OSTATUA
✆ 948630052•Zalain•BERA

LESAKA

# Maiatzaren 19ko Gazte Eguna ekitaldiz gainezka heldu da

## Kontrol sozialari buruzko solasaldia eskainiko du aditu batek

Aitor AROTZENA

Larunbat honetan, maiatzak 19, Gazte Eguna ospatuko da eta urtero bezala, ekitaldi aunitz prestatu dira. Goizeko 11etan pilota txapelketa jokatuko da. 3etan mus txapelketa izanen da Arranon. Arratsaldeko 5etan, Iñaki Gil de San Vicente adituak kontrol sozialari buruzko solasaldia eskainiko du Arranon. Arratsaldeko 7,30etan kalejira izanen da, trikitilari eta tinbal-joleekin. Gaueko 9etan afaria izanen da Arranon eta afal ondoan kontzertua Berri ostatuan. Egun hau prestatzeko euskal produktuez osatutako zare bat zozketatuko da eta saria Berrin emanen da. Kontzertua akitzeko DJak ariko dira musika paratzen.



ARTXIBOKOA

**Nafarroako Bertso Eskolen topaketa burutu da aste hondar honetan Matxinbeltzenean. Larunbat goizean batzarra egin zuten, Nafarroako bertso eskolen egoera eta bertsolari gazteen eskariak aztertuz. Xalto Sariaren antolaketaz ere aritu ziren. Eguerdian, Arranon, 14 eta 18 urte bitarteko bertsolarien eskolarteko lehiaketa egin zen. Beñat Taberna beratarra izan zen Bortzirietako eskolako ordezkari bakarra. Bazkal ondotik, bertso tailerra egin zuten eta arratsean afaria. Igande goizean topaketen balorazioa egin zuten. Argazkian, duela 3-4 urteko txapelketaren finalean, Alaitz Rekondo, Xabier Terreros eta Noelia Linares.**

## Kirola

### *Bortzirietako futbito txapelketan izen emateko epea ireki da*

Jakinen duzuenez, Beti Gazteko areto futbol talderik ez da kanbxaratu aurtengoan. Baina Lesakako Udalaren laguntzaz, Bortzirietako futbito txapelketa antolatu du bertze urte batez areto-futbol talde horrek. Izen emateko epea maiatzaren 27an akautuko da. Horretarako, Lesakako Koxkilla ostatura edo Berako Errekalde ostatura joan behar da eta taldeko hamar mila pezeta ordaindu. Gehienez lau taldekide izaten ahal dira federatuak. Txapelketa ekainaren lehenean hasiko da. Ligaxka modura jokatuko da.

Bertze aldetik, aurtengoan ez du, momentuz, Herri Lasterketarik antolatuko Batzoki Elkarteak. Garai honetan egin dute lasterketa azken zortzi urteetan, baina Julian Iantzi antolatzaileak TTIPI-TTAPARI adierazi dioenez, arazo batzuk direla eta oraingoan ez da eginen.

## FLASH

### *Kinto bazkaria*

1969, 70 eta 71n sortutakoek kinto bazkaria eginen dute larunbat honetan, maiatzak 19, Irubide jatetxean. Txartelak maiatzaren 19ko eguerdia bitartean 1.000 pezetatan salgai daude Haizegoa eta Koxkilla ostatuetan.

### *Xorroxinen inaugurazio ofiziala*

Aste batzutan probetan aritu ondotik dagoeneko Xorroxin Irratiaren Lesakako estudioa lanean ari da. Nerea Aitzuri aranztarra da arduraduna eta betiko 107.1 frekuentziaz gain, 88.1a ere izanen dute lesakarrek aditzeko. Ortziralean egin zen inaugurazio ofiziala, mahainguru batekin etaberenduarekin.

### *Suteak Frainen*

Frainen egiten ari diren erreberritzeetako batean suak ihes egin eta arazo batzuk sortu zituen. Modu berean, herriko menditan otsagoiti joan dela eta arazoak izaten ahal direla adierazi zuen azken udalbatzarrean EHko ordezkariak. Erreberritzeak auzotar eta bolondresen esku bakarrik utzi beharrean, Mendi Batzordeak ere esku hartu eta plangintza bat prestatu beharko lukeela uste du EHk. Alkateak erran zuenez, «oraingo arteko erreberritze guziak Nafarroako Gobernuaren baimen eta kontrolarekin egin dira».

Zoko Erreka
Loreak eta landareak
LESAKA

Deñe
LENTZERIA
MERTZERIA
Tfnoa.: 948 627 514
Beheko Plaza 8, LESAKA

ANA Ajmaridenda
Bittiria 41 • 948 637518 • LESAKA

KATTU
ostatu - jatetxea
Plater konbinatuak eta menuak
948627573 • LESAKA

kixkur
ileapaindegia
Tel: 948 637429
Bittiriako Plaza, 3 behea
LESAKA



PERTSONAIA
Jabier ARRIBILLAGA

*«Aunitz gozatzen dut haurrekin patinatzen»*

18 urteko gazte honek bigarren urtea du Etxalarren patinaje ikastaroak ematen dituela. Apuntaturiko 40 haurrak bi taldetan banatzen ditu larunbatero; 11tatik 12etara ttikienak eta 12etatik ordu batak arte nagusiagoak. *«Hockey partiduak patinen gainean ongi jokatzea da nere helburu nagusia»* dio. *«Batzuetan, ikasleak nahiko aldrebes portatzen bazaizkit ere, nahiko errez erauten ditut klaseak»* komentatzen du Jabierrek. Ikasleek uzten dioten neurrian patinaje ikastaroarekin antzinera segitzeko intentzioa erakusten du Jabierrek.

ETXALAR

# Herriak «Euskarari, zor zaiona» kanpainarekin bat eginen du

## Atea aldatu eta markesina bat paratuko da Landagain eskolan

Joseba eta Nerea

Azken hilabete hauetan, Nafarroako Gobernuaren aldetik euskarak jasotzen ari den erasoak direla eta, Nafarroako hainbat erakunde murrizketa horien kontra agertu dira. Hauen artean "Oinarriak" plataforma dago; bere ekintzen artean "Euskarari, zor zaiona" kanpaina martxan jarri du. Ekimen honekin nafarrok dugun desadostasuna erakutsi nahi da eta Etxalarko Euskara Batzordeak, beraz, horretan parte hartzea erabaki du. Modu honetan, herritarrei errenta aitorpena egiterakoan euskararen alde emandako diru-laguntza desgrabatzea eskatuko du. Euskara Batzordean, Euskara Mankomunitatean edo Udaletxean izanen da informazioa biltzeko aukera.



Archivaren

El Salvadorrera 150.000 pezetako dirulaguntza bideratu du Udalak.

### *El Salvadorrera dirulaguntza*

Amaia Larralde lesakarrak urte batzuk badaramatza Gobernuz Kanpoko Erakunde batekin lanean El Salvadorren. Bertan urtarrilean izan ziren lurrikaren ondorioz bizitutako egoera larria gainditzeko Bortzirietan dirua biltzen aritu da. Bertze ekimen batzuen artean, Etxalarko udalari diru-laguntza eskatu dio. Izan ere, eskuartean duen proiektuak 1.000.000 pezetako aurrekontua du eta momentuz 750.000 pezeta lortu ditu. "Hirugarren mundua eta pakea" proiektua aurrera atera ahal izateko Etxalarko Udalak 150.000 pezetako diru-laguntza emanen dio. Honetaz gain, toki behartsuetan lan egitera joan diren Etxalartarrekin harremanetan paratzea erabaki du udalak, diru-laguntzen banaketa egin ahal izateko.

### *Landagain eskolako obrak*

Bada denbora dexente Landagain eskolak sarrerako atearekin arazoak zituela, euria egitean ura sartzen baitzen. Hori konpontzeko, udalaren esku-hartzea eskatu zuen eta azken honek udal-arkitektuari eman zion eginkizuna. Honen proiektuaren arabera, sarrerako atea aldatzea eta markesina paratuko du Udalak.



BORTZIRI
UNSION ANAIAK
sukalderako haltzariak
ERAKUSKETA
Bereau etxea • LESAKA
Tel eta Faxa: 948 637 266



ETXALARKO
HERRIKO OSTATUA
LEHEN JAUNARTZEKO
MENU BEREZIA
3.500 pezeta
✆ 948635290

TXIRULA
loredenda
Altzatur, 39-K
☎ 627542
LESAKA
• bitxikeriak •
• opariak •
• enmarkazioak •

IGANTZI

# Urteroko kanpaldi eta ospakizunak izanen dira ikasturte akabailan

## Gurutxe, Asun eta Mª Jesus Iribarrentzat izanen da igerilekuko lana

Oskar TXOPERENA

Ikasturtea azkenak ematen ari den honetan, urtero bezala, kanpaldi eta ospakizunen sasoia ere heldu zaigu. Hurbilenetik hasiz gero, Haurraren eguna aste honetako ortziralean eginen dela erran beharko, urteroko egitarauarekin: jokoak, bazkaria... Heldu den astean –23, 24 eta 25ean–, berriz, 3. ziklokoak Arabako Zuatzara joanen dira kanpaldira eta hurrengoan izanen da gainerakoen txanda: 1. eta 2. ziklokoak 30, 31 eta 1ean Lizarrara eta Haur Hezkuntzakoak 30 eta 1ean Oriora.



Oskar TXOPERENA

**Arkupekoek euren harat-honatekin segitzen dute beti bezala. Joan den hilabetean bertan ari den taldea Iruñean urtero egiten den soinketa-bestara joan zen, bertze zenbait kide lagun zituztela.**

Bertzalde, Eskola Kontseiluak heldu den ikasturterako Haur Hezkuntzako zenbait gai –ingelera eta gaztelera– leku faltagatik kendu beharrean dagoela adierazi dio Udalari ohar baten bitartez. Ikusteko dago oraingoan laguntzarik bidaliko ote duten Iruñetik arazoak moldatzeko behar diren obrak egiteko.

### *Piszinetako lanak*

Hilabete hasieran izandako bilkuran erabaki zuen Udalak nork eginen duen piszinetako kudeaketa lana. Bi aukera zeuden: Bata, 700.000 pezetakoa, Elixabet Iturria aranztarrak bertze hiru kiderekin aurkeztutakoa, eta bertze Arameneko Asun, Mª Jesus, eta Gurutxe[...]na, 600.000koa. Udalbatzak ahobatez ona[...]tu zuen azken hauen [...]kaintza.



### *Moldaketak Piedaden*

Piedadeko ermita moldatu berri xamarra bazen ere, nahiko lan ematen ari omen zire[n] azken bolada honeta[n] teilatuko itxoxurek. Premia ikusita, asteasantuko egun librea aprobetxatuz, teilaberritu egin dute auzolanean, lehengo teilazaharra kendu eta sendor eta hobeagoa paratuz.

Bertzalde, joan den astelehenerako espero zen Aralarko San Migelen urteroko bista, eta asteazkenean San Isidro egunek[o] ohiko bestan, 50 lagu[n] ziren elkartzekoak Arantzan –20 igantziar– nekazarien eguna ospatzeko.

ANTZOZELAI S.L.
HARRI NATURALA
ZINTARRIAK
ADOKINAK
ZOLAK


DROGUERIA MOLINERO
• DROGERIA • LURRINDEGIA • OPARIAK •
2.000 kolore baino gehiago lortzen ahal duen makina
10 minututan zuk nahi duzun kolorea
Profesionalentzat prezio berezia
Iturlandeta, 6 • ✆ 948 63 02 40 • BERA


J. RAMOS
Zolak akutxilatu eta barnizatzen dittut
✆ 948631342 BERA • ✆ 948637172 LESAKA

OBRA PROIEKTUAK
✓ Etxe berriak eraikitzeko
✓ Zaharbarritzeko kanpotik eta barnetik
✓ Urbanizazio proiektuak
✓ Obra-zuzendaritza
BIDASOA
arkitektura bulegoa
Bittiria, 45 • ✆ 948 637 503 • LESAKA

ARANTZA

# Hondakinak bereizteko eta birziklatzeko ontziak paratu dira

## Aurtengo udal aurrekontua onartu eta jendea aitzinean paratu da

Garbiñe eta Elixabet

Hondakinak edo zaborrak biltzeko eta birziklatzeko ontzi berriak ekarri dira herrira. Momentuz, ontzi berriak hiru tokitan paratu dira: eskola azpian, Goiko Karrikan eta Osiña auzoan. Kontuan hartuz aunitz dela sortzen dugun hondakina, gero eta garrantzi gehiago du zabor hori bereizteak eta, posible dena, birziklatzeak, berriz ere gauza berriak egiteko probextuko. Eginahal hauetan denok lagundu behar dugu eta ikasi behar dugu etxean bertan hondakinak bereizten eta poltsa ezberdinetan sartzen. Horrela, zakarrontzi urdinetan papera eta kartoia tolestuak; horietan, enbaseak, brik ontziak, plastiko eta metalezkoak, latak, botilak edo plastikozko boltsak; berde borobiletan, kristala edo beirazko botilak eta berde normaletan, birziklagarria ez dena, etxeko zaborra; eta zaborrontzi horietan, pilak. Tamaina handiko hondakinen bila hilabetearen bigarren ortzegunean etxeetara etorriko dira, horretarako astearteak baino lehen telefono hauetara deitu behar da: 948 635254.



TTIPI-TTAPA

**Zaborrontzi berriekin gisa honetako itxura hartuko dute herriko karrikek.**

### *2001eko udal aurrekontua*

2001eko aurrekontuaren egitasmoa ahobatez onartu zuen Udalak. Jende aurrean 15 egunez egonen da, interesatuen esku.

FLASH

### *Abentura Kirolak*

Narbarteko BKZk inguruko gazteentzat abentura kirolak antolatu ditu maiatza eta ekaineko igandetarako. Aktibitate hauetan parte hartuko duten 25 urtez beheitiko gazteek 1.000 pezetako dirulaguntza izanen dute Udalaren eskutik.

### *Auzolanak*

Auzolanak hobekiago antolatzeko asmoz, auzoz auzoko arduradunak izendatu ditu Herriko Etxeak. Horrela, herrian Teodoro Pikabea, Bordalarrean Lorenzo Telletxea, Albizaldean Juan Mari Gonzalez, Eguzkialdean Alberto Pikabea, Alentsa eta Azkilarrean Panttaleon Errandonea eta baserrietarako bideen arduradunak izendatu dituzte lan hauetarako.

### *Medikuaren etxeari buruzko inkesta*

Partizipazio ttikia izan da medikuaren etxeari buruzko inkestan, 26 bertzerik ez baitziren bildu. Etxea dagoen bezala errentan emateak hartu ditu botu gehien. Datu hauekin eta jasotako iritziak kontuan hartuz, Udalak ondoko egunetan hartuko du erabakia.



ALBERGEA
JATETXEA
ATERPE ALBERGEA
✆ 948 634179
ARANTZA

Rafa: 600 819 640
Jose: 666 235 466
PINTURAS LEGUIA S.L.
Eztegara 26, 2.C - BERA


LESAKA

ARTEKARI TALDEA
ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA
LESAKA:
• Astelehenetik asteazkenera 9-13tara eta 15-19etara
• Ortzegun eta ortziraletan, 8etatik 15etara
Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6 • Tlfnoa: 948 637050
BURLATA:
ARTEKARI, S.L., ✆ 948133328•133346, Faxa: 948133713
Non: La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA
- Langile Autonomoak
- Nekazariak eta mendi-langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitorpenak
- Elbarritasun eta jubilazio tramiteak
- Bideragarritasun planak

IRU BIDE
Tlfnoa: 948 637 127
LESAKA

XATURETXEA
JATETXEA
Tlfnoa: 948637027 LESAKA

BERTIZARANA

# Bertizko natur parkean biltzarrak eta kongresuak eginen dira

## Jauregia berriztatu da 260 pertsona batera hartzeko

Rakel GOÑI

Javier Markotegi Nafarroako Ingurugiro, Lurralde Antolamendua eta Etxebizitza kontseilariak, Bertizko Jaurrerira egindako bisitan inguruak izanen dituen erabilpen berriak azaldu zituen. Nafarroako Gobernuak Bertizen kongresuak eta biltzarrak egitea bultzatu nahi du, horretarako jauregia modatzeaz gain, gida bat argitaratu dute zerbitzu hauek eskeintzeko. Gaur egun jauregian 100 biltzarkideendako areto nagusia, 40 pertsonendako lau gela eta bertze batzar gela batzuk ditu. Orotara 260 pertsona bildu daitezke jaurerriaren egoitza nagusian. Proposamen honen helburua Markotegiren erranetan *«eskualdeko garapen ekonomikoa bultzatzea da»*. Kontseilariarekin batera Parkeko zuzendaria, Luisa Arana Navaridas eta Ingurumeneko Zuzendari Orokorra, Jose Ignacio Elorrieta egon ziren Bertizko Natur Parkera egindako bisitan.



ARTXIBOA

**Bertizko Jauregia moldatu du Nafar Gobernuak kongresuak egiteko.**

### *Parkearen 16.000 eskuliburu editatuak*

Bertizko Natur Parkearen informazioa jasotzen dituzten bi gida argitaratu ditu Nafarroako Gobernuak. Lehenengoan lorategiaren ikuspegi orokorra ematen zaio bisitariari eta bertan egin daitekeen 800 metrotako ibilbidea zehazten da. 5.000 ale argitaratu dira erdaraz eta 1.000 euskaraz eta bere baitan lorategiko eraikuntzak zeintzuk diren eta parkeko landare eta zuhaitzei buruzko argibideak eta azalpenak ematen dira, bisitariaren dudak argituz.

Bertzalde, bigarren eskuliburuan Jaurerriaren mapa topografikoa ikus daiteke. Irudian bideak, iturriak, askaltzeko tokiak eta puntu bakoitzaren garaiera azaltzen dira.

Gida bakoitza Bertizko Parkearen atean edo Naturaren Interpretazio Zentruan ehun pezetaren truke erosten ahal da.

### *Udaberri gaztea kanpaina martxan jarri du BKZ-k*

Narbarten kokatua dagoen BKZ enpresak udaberri honetarako gazteentzat hainbat aktibitate prestatu ditu. Igande arratsalde guztietan Maiatzaren 13 an hasi eta ekainaren 24a bitarte izanen dira eta bi talde orokorretan banatuko dira, zortzi eta hamalau urte bitartekoak eta hamalau urtetik gorakoak. Lehenengoak neumatikozko balsa batzuetan Bertizko Narbarterainoko bidea egin ahal izanen dute piraguan ibiltzea eta trineoaren antzerako tramankuluaren gainean joatea dira bertze bi aukerak. Bigarren taldekoek aukera gehiago dituzte, hala nola, hidrospeed, kayak, kainoiak I eta II eta puenting-a.

Baztan, Doneztebe eta Arantzako udalek, Lekaroz BHI, S.Fco Javier Ikastetxeak, Baztandarren Biltzarrak eta Narbarteko Guraso elkarteak euren partaideei laguntza ekonomikoak emanen dizkiete. Izena emateko: 948 592 32 telefonora deitu.




APARAN, S. A.
BRIKOLAIA eta ZURAK
- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...

Tel.: 948 450 133
948 451 541
Faxa: 948 450 334
DONEZTEBE



BELARRA
OSTATUA - JATETXEA
Anezto kalea • DONEZTEBE
Tfnoa: 948 45 03 06



KATEA - BIKE
Kontonberri 1, bis • BERA
Fax - Tel: 948-631218

Bizikleta Tailerra
errepide, mendi, trekking eta haurrendako bizikletak
Arropa eta osagarriak
Salmenta eta konponketa

MALERREKA

# Ikastaro ezberdinak antolatu dira Donamariako eskolan

**Marrazki, margo, arte esperimentala eta perkusioa ikasteko aukera ematen du**

Tipi-ttapa

Maiatzaren 15ean hasi eta uztailaren 15a bitarte hainbat ikastarotan parte hartzeko modua eskainiko da Donamariako eskolan.

Alde batetik, marrazki, margo eta arte esperimental tailerra emanen da, astean lau orduz, astearte eta ortzegunero. Matrikulatzeko prezioa, hilabetean 4.500 pezetakoa da. Bertzetik, perkusioan hasiera eta perkusio tailerra astean lau orduz emanen da, astearte eta ortzegunero. Prezioa, hilabetean 3.500 pezetakoa da.

Izena emateko eta gehiago jakiteko, 689 961908 telefonora deitu behar da.

### *Labaien eta Urrozko Herriko Ostatuak*

Labaiengo Ostatua lau urterako hartu nahi duenak heldu den asteazkena, maiatzak 23, eguerdiko 12ak baino lehen aurkeztu beharko du proposamen ekonomikoa udal bulegoan. Hasierako prezioa hilabetean 25.000 pezetakoa da. Interesatuek, eskaintzaren %2a ordaindu beharko dute behin behineko fidantza gisara.

Bertzalde, Urrozko Ostatua ere bortz urteterako emanen da. Proposamenak maiatzaren 30a baino lehen aurkeztu behar dira.



ARTXIBOKOA

**Igande honetan, maiatzak 20, Bilboko Guggenheim museora bisitatuko da, Ezpelura Emakume Elkarteak, Nafarroako Kutxaren laguntzaz antolatutako bidaian. Goizeko 7,30etan abiatuko da autobusa Doneztebeko geltokitik. Goizean museora bisita gidatua eginen dute eta bazkal ondotik, Gure Ama Begoña basilika eta Santiago katedrala bisitatuko dute.**

## Errepideak

### *Abiadura mantsotzeko bandak paratu dituzte Iturenen*

Errepidea Ituren erditik igarotzen denez eta autoak abiadura handian ibiltzen direnez, Udalak istripuak saihesteko abiadura mantsotzeko bandak paratu ditu auzoko lau tokitan: bi sarreretan, Lopetxenea parean eta Kamioko etxebizitzen parean. Bertze biak, Errekaldea eta Kastinea tartean eta Jauregia eta Inarrea tartean paratu dituzte.

Maiatzaren lehen astean jarri dituzte eta lehendabiziko harriduraren ondotik, jendea ohitzen ari da. Argi dago segurtasunerako behar-beharrezkoak zirela.

SUNBILLA

# Bizi-poteoa antolatu da maiatzaren 26an

Jalone eta Alba

Duela urte batzuk antolatu zen bizi-poteoa arrakastatsua izan zenez aurten berriro egitea pentsatu da. Maiatzaren 26an, larunbata, partehartzaileak kanpinera abiatuko dira eta han potea hartuko dute. Ondoren, herrian barna ibiliko dira, ostatuz ostatu tragoa eginez. Proba berezi honen irabazlea, denbora gehien irauten duen txirrindularia izanen da.

Agian ere ez dute alkoholemia kontrolik paratuko, bertzenaz…

### *Lehen jaunartzea*

Joan den apirilaren 29an ospatu zen San Juan Bautista elizan lehen jaunartze ospakizuna. Aurtengoan neska bakarra izan da lehen aldiz jaunartzea egin duena, Maider Aranzo.


SALAZONES UDANA, S. L.

Inportaziozko lehen kalitateko bakailu gazitua
Bakailu gezatua eta hozgelatua, erabiltzeko prest

Alkaiaga ind. • Banarta, 8 - 23. pabilioia • LESAKA • Tel. 948 631536 • Fax: 948 631550

GAZTANDEGIA
Lizun
Etxeko
Ardi Gazta
Petanekozoria • Tfnoa: 948 450 602 • SUNBILLA

ETXANDI TXOKO
jatetxea
Bazkari, afari eta gosariak
ITUREN / Tfnoa: 948 45 04 91

GOIZUETA

# Herriko alkateak epailearen aurretik igaro behar izan du berriz ere

## Udalak Armadarekin ez kolaboratzeagatik epaitu dute Pili Untxalo

Esteban AROTZENA

Dagoeneko ohiko xamarra bihurtzen ari den berria baldin bada ere, ezin da aipatu gabe utzi Pili Untxalo herriko alkatea maiatzaren 3an epaitu zutela Iruñean. Akusazioa, betikoa, Espainiako Armadarekin ez kolaboratzea alegia, eta zehatzago esanda, gazteak soldadutzara eramateko Udalari dagozkion *eginbeharrak* ez betetzea.



**Pili Untxalo alkatesa, ezkerrean, udal batzar batean.**

Patxi Zabaleta abokatu defendatzaileak Udal idazkaria eta herriko gazte bat eraman zituen lekuko gisa. Argi eta garbi adierazi zuen idazkariak Espainiako Armada Ministeritzatik deialdia jaso orduko abisoa ematen zaiela interesatuei. Alkateak esan zigunez, herritar gazte hauek justiziarekin inolako arazorik izan ez dezaten egiten omen du hau Herriko Etxeak. Hau, abisoa jasotzearena alegia, hitzez hitz baieztatu zuen aipatutako beste lekukoak.

### 1987-91 LEGEALDITIK EPAITEGIETAN

Fiskalak, alkatearentzat sei hilabeteko kargu gabetzea eta egun bakoitzeko 2.000 pezetako isuna eskatu zuen. Untxalo alkateak berriz, udalbatzak hartutako akordioa bete besterik ez zuela egiten esan zion behin baino gehiagotan epaileari.

Honetaz esan behar da 1987-91 legealdian hartu zuela herriko Udalak lehenengo aldiz, gisa honetako erabakia. Anizlarrea taldeak gehiengoa zuela izan zen. Objezioaren aldeko deialdia egiten zen mozio hartan. 1994an berriz, beste urrats bat eman zen, Armadari laguntza guzia ukatuz eta orduan puri-purian zegoen intsumisioa aldarrikatuz eta bultzatuz 1997an hiru urte lehenagoko akordio hura baieztatu zuen korporazioak. Bi legealdi hauetan HB-EHkoak ziren zinegotzi guziak. Geroztik, behin eta berriz epaitua izan da Pili Untxalo, baina oraindik ez du kargu gabetze zigorrik jaso.

ARESO

# Garrapalda eta Otsasagastiko xenda paseorako txukunduko da

## Langabezian dauden bi langile hartuko dira udan

Juana Mari SAIZAR

Garrapalda eta Otsasagastiko xenda txukundu eta paseorako jarri nahi du Udalak. Hor dagoen garbileku edo labaderoa ere moldatu nahi da. Lan hauek Udala eta INEMen artean eginen dituzte. Ia-ia osorik subentzionatua izanen da eta udako hiru hilabetetan, langabezian dauden bi langile kontratatuko dira.

Bestalde, Nafarroako Gobernuaren 2001-2003 Hirurteko Azpiegitura Planeko ordezko lanetan sartu dute Otsaidekoborda, Iruñegi eta Felipebordako bideak zolaberritzea. Egitekotan, 2003. urtean gauzatuko litzateke 1.450.000 inbertsioa.

### *Ulizarren eroritako pinuen enkantea*

Ulizar inguruan haizeak pinu arbolak bota ditu. Zuhaitz hauei probetxua ateratzeko enkantean emango dira, maiatzaren 27an, arratsaldeko 5,30etan Udaletxean egingo den subastan.



Juana Mari Saizar

**Etxarri-Aranazko Abesbatzak apirilaren 29an eskaini zuen emanaldi bikaina, Udaberriko Biraren barnean.**

Beste alde batetik, Udalak udaletxean eta eskolako aretoan dituen ordenagailuak Internet sarera konektatu dira.

# tipi
# tapa

zenbakiarekin banatua

...beti, bostaz besta



Maiatzaren
23tik 27ra

# Salbatoreak Irurita eta Urdazubin

...legatu dira
...guru honetako
...endabiziko
...stak!!



# Iruritako egitaraua egunez-egun

## Asteazkena 23
### Bezpera Eguna

**12etan** Altxaferoa, kalejira herriko trikitilarien esku eta ezkil jotzea. **8,30etan** ezkil jotzea. **9,30etan** Baztanzopak. **12etatik 4etara** Mozorro dantzaldia IRUÑABAND taldearekin (Saria izanen da).

## Ortzeguna 24
### Salbatore Eguna

**10etan** kalejira herriko trikitilarien esku. **11etan** Meza Nagusia (herriko koroak abesturik). **12etan** herriko dantzarien erakustaldia. **1etan** herrikoentzat hamaiketakoa. **4etan** plater tiraketa Bagordin. **6etan** herri kirolak. **8etatik 10etara** dantzaldia JOSELU ANAIAK taldearekin. **10etan** mutildantzak. **12etatik 3,30etara** dantzaldia JOSELU ANAIAK taldearekin.



## Ortziileria 25
### Haur eta Jubilatuen Eguna

**10etan** kalejira KAISKAT txaranga eta trikitilarien esku. **11etatik 1ak arte** haur jolasak. **2etan** oilo jatea haurrendako, jubilatuendako bazkaria Olari jatetxean eta Baigorrin gazteendako. **3,30etan** haur jolasak. **5,30etan** kalejira txarangarekin eta txokolate jatea. **8etatik 10etara** dantzaldia AKELARRE taldearekin. **10etan** mutildantzak. **1etatik 5etara** gaupasa AKELARRE taldearekin.


ARKUPE GOZOTEGIA
IRURITA ✆ 948 452021
ELIZONDO ✆ 948452393
Tarta bereziak eta Etxeko izozkiak

ttipi-ttapa aldizkariak
Salbatore besta zoriontsuak opa dizkie
Urdazubi eta Iruritako bizilagun guziei

SUMINISTROS YANCI
• Iturgintza eta kalefakzio materialaren salmenta
• Iturgintza instalazioak
• Gas eta Gasoil berogailuak
• Erregailuen moldaketa eta mantenimendua
• Moble osagarriak eta bainurako manparak
Zaldubia Poligonoa - IRURITA - Tel: 948 580109 • 948 452464

BAZTAN MOTOR, S.L.
Mekanika, elektrizidadea, txapa eta pintura
Auto berri eta erabilien salmenta
Zaldubia • IRURITA
Tel. eta Faxa: 948 452 119
PEUGEOT

JOAKIN harategia
Besta onak pasa!
✆ 948 581077 • Agerrebenea • IRURITA



DANTZAK LEKU BEREZIA IZAN DU BETI IRURITAKO SALBATORE BESTETAN. AITZINEKO ORRIALDEAN GAUR EGUNGO GAZTEEN TALDEA, GAN DEN URTEKO BESTETAN. ORRIALDE HONETAKO ARGAZKIAK URTE BATZUK GEHIAGO BADITU., 1950EAN ATERIA BAITA.

## Larunbata 26

**12etan** KAISKAT txarangarekin kalejira. **2etan** herri bazkaria txarangak lagundurik. **5,30etan** nesken Aranabiako VI. Paleta txapelketaren finala. **8etatik 10etara** dantzaldia TXIMELETA taldearekin. **10etan** Mutildantzak. **1etatik 5etara** gaupasa TXIMELETA taldearekin.

## Igandea 27

**10etan** XLVIII. Txirrindulari Salbatore Saria. **10,30etan** Meza Nagusia. **11,45etan** kalejira txarangaren esku. **5,30etan** Gorritiren animaliak. Laguntzailea: Baztandarren Biltzarra elkartea. **7,30etatik 10etara** dantzaldia INDIANA taldearekin. **12,30etatik 3,30ak arte** dantzaldia INDIANA taldearekin eta besten akabaila.














DANTZARI TAILAK, GAN DEN URTEKO EMANALDIA BAINO LEHEN.


ETXELEKUA
ETXEKO ARDI GASNA
Zugarramurdiko karretera.
✆ 948 599169 URDAZUBI

BURKAITZEA
ostatu
erretegia
Ongi pasa herriko bestak!
Zugarramurdiko bidea, 3 km.
✆ 948 599280 • URDAZUBI


Estankoa
Ostatua
Tel: (0034) 948 599
31710 URDAZUBI


Venta JUAN FELIX
Ostatua
Oroigarriak
Janaridenda
Tel. 948 599 052 - DANTXARINEA

VENTA PULPERIA
Janaridenda • OSTATUA
Tel.: (0034) 948 599 046
DANTXARINEA

ARRETXEA BENTA
Tabakodenda • Janaridenda
Jantzidenda
Zapatadenda
Tel. eta Fax: 948 599015
DANTXARINEA ESTAZIO ZERBITZUA
Tel.00 34 948 599250
DANTXARINEA

ANASTASIA OSTATUA
Janari Denda
Tfnoa: 948 59 90 27 - URDAZUBI

# Urdazubiko egitaraua egunez-egun



Narciso Mihura Karrikaburuk 95 urte ditu egun. Maria Galainena Etxenikek 88. 1934ko maiatzaren 19an esposatu ziren, beraz 67 urte bete dituzte ezkondurik. Maskotenea baserrian bizitu dira eta hamar seme-alaben gurasoak dira. Horietatik zazpi bizirik dituzte. Argazkiak baditu urte batzuk, baina oraindik ederki daude Narciso eta Maria. Zorionak!

## Asteazkena Maiatzak 23

**Arratsaldeko 8etan** suziriak besten hasiera emateko. **10etan** afaria Indiano Baitan. **12etan** dantzaldia MODESTOrekin.

## Ortzeguna Maiatzak 24

**11,30etan** Meza Nagusia. **12,30etan** zintzur bustitzea dantzan eta txistulariekin. **Arratsaldeko 4etatik 8etara** haur jokoak. **5etan** pilota partidak:

- Ameztoi-Pardo, Zenoz- Etxart Iren kontra.
- Arrieta-Elizalde, Ollo-Etxart Iren kontra.
- Amorena-Jaurena, Ariztegi-Juanenaren kontra.

**8,30etatik 10etara** dantzaldia ETXABE Anaiekin. **10etan** paellada. **12,30etan** dan-


Mª Cruz Plaza
Haretegia
Tfnoa: 948 599008 - URDAZUBI

SANTIAGO VILLARES
GARRAIOAK
• Luzerna
• Agotza eta lastoa
• Luzerna - pentsu granulatuen
SALMENTA eta EXPORTAZIOA
✆ 948 59 91 34
URDAZUBI

KULTURKARI
Inprenta lanak egiten ditugu
• Kartelak
• Boletoak
• Faktura taloiak
• Bisita txartelak
• Aldizkariak
• ...
Behar duzuna momentu batean egiten dizugu: zure gustora diseinatu, inprenta desberdinekin prezionk hoberena negoziatu eta listo! Deitu lasai, eskatu aurrekontua eta ikusiko duzu!
✆ 948 63 11 88

ZUBIONDOA

Ostatu
Autozerbitzua
Oroigarriak
Tel: (00 34) 948 599 041 / DANTXARINEA

Indianoa Baita
Jatetxea - Hostala
Ongi pasa herriko bestak
Tfnoa: 948 59 90 21 - URDAZUBI

ARMUA
Jatetxea
Zugarramurdiko karreteran, 3. km
✆ 948 59 91 31 - URDAZUBI

IRIARTEA BENTA
Chez Peyo
Ostatua - Autozerbitzua - Larrua...
Tfnoa: 948 599049 - DANTXARINEA • URDAZUBI




tzaldia ETXABE anaiekin.

**Ortzirala Maiatzak 25**

**1,30etan** Ugarana Andre Elkarteak antolatutako bazkaria herriko frontoian. **12etatik 2etara** ludoteka eta gaztelu erraldoia. **3etan** kalejira Dantxarinetik Modestorekin. **10etan** suzko zezena eta japoniar bonbak. **12etan** kontzertua: EKO IV, ALTXAMENDU, HYSSOPUS eta ondotik bi DJ.

**Larunbata Maiatzak 26**

**2etan** Zikiro jatea txaranga batekin alaiturik. Ondoren txiste mundialak. **12,30etan** gaupasa ETZAKIT taldearekin.

**Igandea Maiatzak 27**

**3etan** ahate jokoa Herriko plazan. **6etan** gauezkolarien bideetan lasterketa eta mago baten ikuskizuna. **10etan** boletoen zozketa.

MENTA Jatetxea
Xaretako lurraldean
✆ 948 59 90 20
DANTXARINEA URDAZUBI

Kategoria bereziko hostala
IRIGOIENEA
Tel.: 948 59 92 67 • Faxa: 948 59 92 43
URDAZUBI


PATXI
DANTXARINEA - faxa 948 599384 - ✆ 948 599106

Merkataritza gunea LAPITXURI
Zerbitzurik onena Lekurik onenean
DANTXARINEA • Telf. (0034) 948 599 093
BAR - SNACK - TAPAS
HABANAKO ZIGARROAK INPORTAZIOAN
MARKA GUZIETAKO ZIGARRETAK
Janaridenda - Harategia
Frutak - Lekaleak
ORDEGARRIAK


Zure gaurik onenak musikarik onenarekin DISKOTEKAn pasatzera gonbidatzen zaitu, girorik onenean eta lekurik onenean.
Zeonek ikus ezazu. Esperoan gaude.



1920. URTEAN URDAZUBIKO ESKOLAKO NESKAK. LUISA TOMASENA, JACINTA TOMASENA, X. ARIZTIA, MARIA URRUTIA, MARIA ORGANBIDE ETA EULALIA AGIRRE. BERTZE BATZUK ERE EZAGUTUKO DITUZUE BATEK BAINO GEHIAGOK.

JOSENEA
Zerbitzu Estazioa
Besta ederrak pasa!
✆ 948 599090
URDAZUBI

Faustino ETXABE Tailerrak
Autoen konponketa
Besta on batzuk pasa!
✆ 948 599038 • ZUGARRAMURDI

Josune ileapaindegia
Gizon eta emakumeendako
SOLARIUM
✆ 948 599028 • URDAZUBI

mikelenborda
DANTXARINEA

IKABURUA
Ostatu - Jatetxe - Erretegia
Lezeetatik 50 m.tara
✆ 948 599 222
URDAZUBI

Rosa Mentaberri
Ileapaindegia
✆ 948 59 91 29 - DANTXARINEA • URDAZUBI

Venta Panta
Ostatua
Janaridenda
✆ 0034 948 599012
DANTXARINEA

INTERVIDEO
Ikusentzutezko produkzioak
Fco. Javier Varela
Bideo Profesional erreportaiak
948 599055 • 609 488612



BAZTAN
ALTZARIAK
zurgindegia
• Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mobleak.
• Estiloko mobleak: Luis XV, Regente, L.Felipe, Napoleon.
• Haritz, gaztain eta gerezi egurretan egindakoak
121 errepide nazionala, 54. km • Tfnoa: 948 45 23 74 • IRURITA




VENTA PEIO
PEIO BENTAREN
zuzendaritza eta langilegoak
besta onak desiatzen dizuegu
Dantxarinea • ✆ (0034) 948 599389

LEITZA

# XXIII. Kultur Asteko ekitaldiak maiatzaren 18tik 27ra eginen dira

Azken egunean eskulangileen erakusketa zabalduko da

Joseba AZPIROZ

Maiatzaren 18tik 27ra eginen dira Kultur taldeak hogeita hirugarren aldiz antolatutako Kultur Astearen ekitaldiak. Hasteko, ostiral honetan «Paseando con Mr. Dixi Jazz Band» taldeak emanaldia eskainiko du gaueko 10.30etatik aurrera zineman. Biharamonean, Asketa Ttiki abesbatzaren kontzertua izanen da leku berean, iluntzeko 8.30etan.

Igandean, maiatzak 20, herri pesta. Goizean kalejira izanen da joaldun, dantzari, txistulari, dultzainero, erraldoi, Asketa abesbatza eta txarangarekin. 1etan plazan pilota eskolakoen partidak jokatuko dira eta 2.30etan Karrapen zikiro jatea izanen da.

Maiatzaren 21ean, astelehena, arratseko 8etan Pangea taldeko Migel Mari Elosegik eta Aitziber Otanok hitzaldia eskainiko dute. Asteartean, ordu eta leku berean Sarasate kontserbatorioko kuartetoaren musika adituko da. Asteazkenean, pilota eskolakoek pilotari profesionalekin entrenatuko dute. Ostegunean, «Herritik basora, pausoka» izeneko diapositiba emanaldia eskainiko du Pako Zuñaurek arratseko 8etan zineman.

Maiatzaren 25ean, ostirala, arratsaldeko 3etan Zirko Tipia taldearen «Hiruak» ikuskizuna plazan. Ondoren arratsaldekoa emanen da. Gaueko 10etan, Aurreran, «Trabenakuloa» kafe antzerkia.

Larunbatean, goizeko 9,30etan mendi irteera eginen da ume eta gaztetxoekin. 5etan plazan koadrilen arteko lehenengo jokoak burutuko dira. 9etan Oialden afaria izanen da eta ondoren Jarauta txaranga. Kultur Aste hau bukatzeko, maiatzaren 27an, eskulangileen erakusketa zabalduko da plazan goizeko 10,30etan. 21 urte beteko ditu aurten erakusketa honek.



David ANAUT

**Azkeneko hogeitabi urteetan bezala, gisa guzietako ekitaldiz betea heldu da Kultur Astea.**

## Euskal Nortasun Agiria

### *Euskal Nazio Agiriari buruzko batzar berezia eginen da larunbatean Udaletxean*

Leitzako Udalak, hilaren 19an, larunbata, eguerdiko ordu batean batzar berezi bat eginen du, Euskal Herritartasun Nazio Agiriaren aldeko proposamenaren inguruan. Bai Euskal Herriari herri ekimenak, lortutako 121.000tik gora sinadurak edo eskaerak Udalbiltzari ailegarazi zizkion, honek aipatutako Nazio Agiria martxan jarri zezan. Sinadurak, euskal herritarroi urratzen zaigun herritartasun eskubidea bermatzeko tresnarik eraginkorrena herritartasun agiria delakoan eta eskubide zibil eta politikoen aldeko eta desobedientziazko ariketa praktikoa izanen delakoan bildu ziren. Orain, Udalbiltzak Euskal Herriko udal guztiei herritarren eskaerak bideratzeko eskaera luzatu die. Horregatik, aipatutako batzarrean, Udalak herritartasun agiriari sostengua emanen dion erabakiko du eta horrela bada, araudia onartuko du. Alkatetzak, bando bidez, herritar orori batzarrera bertaratzeko deia luzatu du.

## FLASH

### *Euskal feminismoari buruzko hitzaldia*

Maiatzaren 18an, ostirala, arratsaldeko 8etan, Aurrera K.E.ren egoitzan, Egizaneko Kizkitza Gil de San Vicentek hitzaldia emanen du euskal feminismoaz.

### *Plazako eskuz binakako pilota txapelketa*

Maiatzaren 12an hasi zen plazan jokatzen den IX. Eskuz binakako txapelketa. Aurten hamabi bikotek parte hartuko dute, bi taldeetan banatuak. Talde bakoitzeko lau lehenengoak klasifikatuko dira. Partiduak larunbatetan, arratsaldeko bostetatik aurrera jokatzen dira (Abelen pilota partidurik bada, goizeko hamarretatik aurrera).

### *Karrape Irratiak*

tresna berriak eskuratuko ditu, udal batzarrean onartu zenez. 1.100.000 pezetako aurrekontua erabiliko da ekipoa berritzeko eta honela kalidade hobean adituko da emisioa.

### *Amazabal pilotalekuaren moldaketak*

Amazabal pilotalekuaren moldaketa lanetarako Hezkuntza Departamenduaren dirulaguntza jasoko du aurten Udalak. Jakina denez, Kirol eta Gaztedi Sailetik lau milioi pezetako dirulaguntza jaso zuen joan den urtean. Lanaren aurrekontua 16.2 milioi pezetakoa da. Udalaren ustez, herriko bi ikastetxeek askotan erabiltzen dute pilotalekua eta horregatik eskatu zitzaion laguntza Hezkuntza Departamenduari.

BAZTAN

# Oronozko saihesbidea 1.200 milioitan atera da lehiaketara

## Aurrekontua uste baino 500 milioi guttiagokoa izan da

Rakel GOÑI

Ekainaren 4ra bitarte aurkeztu ditzakete proposamenak interesa duten enpresak Oronozko saihesbidearen obrak egiteko. Proiektuaren aurrekontua 1.200 milioi pezetakoa izanen da eta 20 hilabetetan lanak akituak egon beharko dira. Egin beharreko lanen artean Zozaia eta Doneztebe-ren arteko lotura izanen da eta bertzalde N121-A errepidea N121-B adarrarekin (Baztanera doaiena) lotuko da. Azkeneko zati honetan 427 metrotako tunela eta Baztan erreka zeharkatuko duen zubia eraikiko dira. Elizondo alderako bidea 845 metro laburragoa izanen da saihesbide berriarekin.

Oronoz Mugairitik igarotzen den N121 errepidean istripu ugari gertatu dira Belateko tunelak egin zirenetik. Lehiaketara atera diren lanak bukatzen direneaan ez da Oronozera sartu beharko Elizondora edo Donostira joateko, azkenik herritarrak lasaitasunez ibili ahal izanen dira Oronoz Mugairitik. Lanak egiteko aurrekontua hasiera batean 1.700 milioi ingurukoa zen baina Aldizkari Ofizialeko foru agin-duan 500 milioi gutiago agertu dituzte.



Xabi BALLARENA'k utzia

**Baztango Herrietako Eskoletako neska-mutikoak kanpaldietara ateratzen ari dira. Argazkian, Pasaiako Piraten etxera joandako taldearena da. Han hiru eguneko egonaldia egin zuten, urtero bezalaxe. Maiatzean eskoletako ttarren txanda allegatuko da eta Hondarribian pasatuko dute bi egun.**

### *Caja Navarrarekin hitzarmena*

Elizondoko alkate jurado den Ana Mari Marinek, Caja Navarra Fundazioarekin urtean eginen diren ekitaldi kultural batzuk finantziatzeko akordioa sinatu du Herriko Etxean. Nekazaritza Arkitektura ikastaroa, Baztan-Bidasoako txistulari gazteen lehiaketa, kanpoko margo lehiaketa, mahai inguruak, solasaldiak, dantza jaialdiak eta gisakoak antolatuko dira. Era berean Elizondoko bandaren jantzi berriak erosiko dituzte.

## FLASH

### *Bi hildako Zozaian*

Dorotea Gamio Iruritako 81 urtetako emakumea eta bere biloba Ignacio Galarregi 7 urtetakoa, N121 errepidean Oronozko arrain-haztegiaren ondoan izandako istripu larrian hil ziren apirilaren 29an. Gertakari berean hildakoaren emakumearen alaba Maria Josefa Mikelarena, larriki zaurituta gertatu zen.

### *Amaiurko baseliza tokiz aldatu nahi da*

Herriko hilerrira doan bidea zabaldu nahirik Amaiurko Pilarreko baseliza hiru metro inguru mugituko dute. Lanak auzolanean egingo dira eta hurrengo urtean hastea espero da.

### *Gau pasa Antxitonean*

Elizondoko antxitonea trinketea ireki zutenetik bigarren gau-pasa izanen da asteburu honetan. Larunbata maiatzaren 19an kontzertua izanen da Imuntzo eta Belokirekin trikitilariekin. Gaueko 12,30etan hasiko da jaialdia eta sarrera 500 pezetakoa izanen da. Era berean Gargardo besta ospatuko da Antxitonean eta hainbat opari zuzenean emanen dira.




24 orduko zerbitzua
ESTHER
LOREDENDA • GARDEN CENTER
ESTHER FUNERARIA
IRACHE TANATORIOA
Aritzondo, Bergara auzoa • Tfnoa: 948580971 • ARIZKUN
Errepide Nagusia • Tfnoa: 948592200 • NARBARTE
Jaime Urrutia 39 • Tfnoa: 948580668 • ELIZONDO



BAZTAN

# Eskuararen Batzorde irekia sortzea onartu du udalak

## Eskuararen inguruko gaiak proposatu eta eztabaidatuko dira bertan

Rakel GOÑI

Doike, AEK, Xorroxin Irratia eta Xaloa Telebistaren eskaerari erantzunez Baztango Udalak Eskuararen Batzorde irekia osatzea onartu du. Udal ordezkariek eta gizarteko edozein taldek porposamenak aurkeztu eta eztabaidatu ahal izanen dituzte eta Bailaran egingo den hizkuntz politikan herrietako agente guztiek parte hartu ahal izanen dute. Eskuararen alde lan eginen du batzorde berri honek eta udal talde politiko bakoitzeko ordezkari bana eta udaletxeko euskara teknikariak osatuko dute. Eskualdunek aukera berberak eta eskuarazko zerbitzuak izatea bermatu nahi da.




Xabi BALLARENAk utzia

**Maiatzaren 28 an 1.500 pertsona inguru atera ziren Elizondoko karriketara eskuararen ofizialtasuna aldarrikatzera. Eskuararen herrian eskuara ofiziala lemapean 50 elkarte baino gehiagok Nafarroako Gobernuaren euskararen foru dekretuarekin duten desadostasuna agertu zuten. Amaieran Martin Gardek irakurritako idatzian eskuaraz bizitzeko eskubidea bermatzeko eskatu zen. Baztango Oinarriak taldea oso pozik agertu da jendearen erantzunarekin eta ortzegunero arratsaldeko 8 etan Arizkunenean, eskuararen alde biltzen jarraituko direla adierazi dute.**

### *Funerarien eskakizunekin kexu*

Nafarroako Funerarien elkarteak Gobernuko Osasun sailari egindako proposamen baten arabera, herrietatik 30 kilometro baino gutiagora tanatorioren bat egonez gero zendutako pertsonak hara eraman beharko dira. Horrela Zugarramudiko hildako bat Elizondoko tanatoriora eraman beharko zuten. Guzti hau dela eta Mateo Lertxundi Elizondoko funerariako jabeak kexa bat aurkeztu du Baztango Udalean, familien nahia errespetatu dadin eta nahi izanez gero hildakoa etxe partikularretan edukitzeko. Baztango Udalak ere Nafarroako Gobernuko Osasun Sailari bere desadostasuna aurkeztuko dio.

### *Pablo Etxamendiri omenaldia*

Elizondon bizi den Pablo Etxamendi irakasle ohiak bere ikasle izandakoen omenaldia jaso zuen Lleidan. Etxamendik Maristen Montserrat ikastetxean irakatsi zuen 25 urtez eta bertan egindako lana eskertu nahirik urte haietako 40 ikaslek ezusteko ederra prestatu ziote. Arrieta herrian sortu zen Etxamendi eta bere bizian munduko hainbat lekutan izan da irakasle lanetan. Venezuelan, bertzeak bertze 20 urte eman zituen, han sortu ziren bere sei seme alabetatik lau. 1986an Doneztebeko enplegu bulegoan hasi zen lanean jubilatu zen arte. Gaur egun bere bi ilobatxoak zaintzea du gustokoen.

## Baztan aratxea izena

Baztango abeltzain eta harakinek "Baztan aratxea" izendapena babestea eskatu dute. Haragi banaketan aritzen den Iruñeko enpresa batek izen hau berea bezala hartzeko eskakizuna egin zuen, halere enpresa horrek Nafarroa osoko aratxea saltzen du. Kontsumitzaileengan zalantzak sortuko zituelakoan izendapen hori, marka, izen komertzial edo bereizgarri bezala ez erabiltzea lortu da. Pasa den hilabetean Felipe Lasa Baztango harakinen presidentea Javier Martinez Alfaro Nafarroako Gobernuko Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamenduko kontseilariarekin bildu zen arazoari irtenbidea emateko. Azkenik Iruñeko enpresari bertze izen bat hartzera behartu zaio eta gobernutik «Baztan» izenaren babesa eginen dela ziurtatu da. Izenen erregistroan galdetu ondotik Baztan izena Caceres- ko enpresa batek aspaldi beregan hartu zuela jakin izan da. Beraz Baztango Udalaren esku gelditzuko da Baztan Aratxea marka erregistratzea.

Eskisaroi jatetxea
Jose Urrutia, ☎ 948 580 013
ELIZONDO

Gierresewea
OSTATU - JATETXEA
Jaki Tipikoak • Etxeko Giroa
Iturriotz Auzoa • ✆ 592043 • ORONOZ-MUGAIRI

ARROPA DENDA
FANTXIKE
Gazteendako era guzietako arropa
Lanerako arropa

AZKAIN

# Saskibaloi neskak, xapeldunak!

## Apirilaren 29an jokatu zuten finala



Maitena Massigoge, Véronique Aguirre, Claudie Aguirre, Roxana Castro, Valérie Bégaule, Véronique Lafont, Pantxika Hiribarren, Laure Goñi, Maite Azarete, Joelle Daubas, Marina Almeida, Laetitia Goñi, Nathalie Hiribarren, Frédérique Delin.

**Pelo eta Eneko**

Kiroletan, apirilaren 29an igandearekin, 100 bat ikusleren aitzinean, saski baloi neska taldeak US.Bearn garaitu zuen "honneur departemental" xapelketan. Partida bizia izan zen, bi taldeek irabazi nahi baitzuten.

Azkaindarrek partida osoa menperatu zuten eta, 2 minuta gelditzen zirelarik kanpotiarrak aitzinera pasatu ziren. 10 segunda gelditzen ziren eta, Azkainek berdinketa lortu zuen.

Azken segunduan, US Bearneko falta batek irabazteko xantza eskaini zion Azkaineri. Maitena Massigogek aukera baliatu zuen: Azkaine 66 - US Bearn 65.

Zoriona handia izan zen Azkainerentzat, lehen aldia baitzen xapelketan parte hartzen zuela. Heldu den urtean "Promotion Excellence" mailan parte hartuko dute.

## Mus txapelketa

### *Union basque xapelketako lehen itzulia Plazan Ostatuan*



**Battitt Mazkotena eta Mixel Sanchez, Frantziako xapelketan, hamahirugarren atera dira.**

Urtero bezala, Plazan ostatuak "Union basque" xapelketari, lehen itzuliko kalifikazioak antolatu ditu.19 bikote Azkainen elkartu dira. Haietatik 3 atera dira lehen itzulirako, Urruñako trinketean: JM Gonzalez-Jean Urdanpilleta, Battitt Maskotena-Michel Sanchez, Xarli Dagerre-Xavier Desert. Han Urdanpilleta-Gonzalez kanporatuak izan dira. Desert-Dagerren ibilbidea aldiz, bigarren itzulian bukatu da, Denen Kanttua ostatuan. Finala Baionan iragan da. Maskotena eta Sanchezek hamahirugarren tokia lortu dute.

### *Errugbi kondu*

Azkaingo senior taldeak galdu du (8-12) final-erdian apirilaren 22an, euri azpian eta zelai lohitsu batean. Partida Puyoo-ren kontra jokatu dute eta han ja danik galdu zuten (12-11). 2 puntuko abantaila aski zuten beraz finalerat heltzeko. Baina Puyoo hastepenetik aitzinerat pasatu da 3-0 penalitate bat markatuz eta ez ditu etxekoar abantaila hartzerat utzi. Entsegu bat bertzerik ez da izan partida osoan (Viquendi) eta bertze hiru puntuak Elissalde markatu ditu penalitate bati esker.

RESTAURANT MIGUEL

Ongi zaindutako sukaldaritza

Menuak aukeran

MIGUEL JATETXEA

Ibardingo Lepoa

✆ 948 631209

BAZTAN-MALERREKA-BIDASOAKO IV. TRIKITIXA TXAPELKETA



LESAKAn

Uztailaren 1ean

Izen-ematea:

• Ekainaren 15a baino lehen 948 637907 edo 657 931427 telefonoetan (Jone)



KULTURA

# Baztan, Malerreka, Bidasoaldeko IV. Trikitixa txapelketa martxan

## Ekainaren 15ean akautuko da izen emateko epea

tipi-ttapa

Azkeneko hiru urteetan bezalaxe, aurten ere Baztan-Malerreka-Bidasoa aldeko trikitilari txapelketa eginen da. Laugarren edizio honetan parte hartzeko izena emateko epea zabalik dago, ekainaren 15a arte. Horretarako 948 637 907 edo 657 931427 telefonoetara deitu behar da (Jone Elgorriaga).

Eskualdeko trikitixa txapelketa hau Lesakan eginen da uztailaren 1ean, igandearekin. Halere, aitzinetik bertze bi txapelketa ere gauzatuko dira. Ekainaren 23an, larunbatarekin, Etxalarko bigarren trikitixa txapelketa jokatuko da eta astebete berandugo, ekainaren 30ean, Doneztebeko bigarren txapelketan izanen dute hitzordua trikitilariek.

Joan den urtean, bi mailatan banatu ziren partehartzaileak: 12 urte arteko haurrak eta 12 eta 18 urte bitarteko neska-mutikoak. Aurtengoan, berriz ere maila bakarrean lehiatuko dira eta ohiko piezak jo beharko dituzte: trikitix, porrusalda, fandangoa eta arin-arina. Trikitilariek, noski, baserritar jantziekin joan beharko dute saioetara.

Jone Elgorriaga antolatzailea gustora dago aitzineko urteetan izandako arrakastarekin eta aurtengoan ere, kalidade handiko txapelketa espero du.



SARA

# Sarako Izarrak antolatu duen Joko Berri lehiaketa bururatu da

## Haur kantu txapelketan ongi aritu dira herriko kantariak

**Aña Mari eta Fred**

Sarako Izarra pilota elkarteak antolatu esku huskako Joko Berri lehiaketa arrakastatsua ateri da. Apirilaren 28an, hiru hilabete iraun duen txapelketa bururatu zen. Hona hemen finalen emaitzak:

4. mailan: Urbistondo eta Aspirot, 40; Jauregi eta Adelaide, 22.

3. mailan: Iribarren eta Etxeberri, 40; Forestier eta Berhau, 37.

2. mailan: Jauregi eta Endara, 40, Barrenetxe eta Berrekoetxea, 33.

1. mailan: Escoz eta Inda, 40; Elizalde eta Lacroix, 27.



**Lehen mailan, ezkerretik eskuinerat Elizalde-Lacroixek 27 eta 40 galdu egin zuten Inda eta Escozen kontra. Hirugarren mailan, ezkerretik eskuinerat Iribarren-Etxeberri bikoteak hiru puntuz irabazi zien Berhau eta Forestier-eri.**

### *Haur kantu txapelketa*

Haur kantu txapelketaren Lapurdiko kanporaketa maiatzaren 1ean iragan zen Urruñako polikiroldegian. Han ginituen Sarako ordezkariak, San Josepe eskolakoak. Ez baldin bazuten Hemanin egiten den Euskal Herriko finalean parte hartzeko baimenik lortu ere, ez ziren urrun gelditu, sariztatuak izan baitziren.

Aurkezpenaren lehen saria irabazi zuten taldeka aritu ziren sei neska gazte hauek: Anais Gorosurreta, Marion Iramuno, Julie Lamothe, Anais Marixular, Amandine Sabarots, Julie Sasias. Kantua beraiek idatzia zuten, «Sara, gure herria» eta doinua herriko Saiberri taldearena zuten. Bakarka ere presentatu zen Anais Marixular eta publikoaren saria irabazi Mixel Thikoipek idatzitako «Gaua delarik» kantuarekin. Eskertzekoak dire neskatxa hauek lagundu dituzten herriko hiru musikariak, Kristian Amorena baterian, Iban Duperu baxoan eta Xabi Luberriaga gitarran, baita prestakuntza lanean aritu den Martina Goietxe ere.

### *Ihiztari Elkartearen biltzar nagusia*

Apiril hondarrean, Sarako Ihiztariak elkarteak urteko biltzar nagusia burutu zuen, 40 lagun bildu zirelarik bilkurarat. Bi puntu aipatzen ahal dira. Batetik, nahiz eta eguraldi arrunt txarra egin, ihizi sasoinan egundaino baino kanpotar gehiago hurbildu zirela Xokobirat, sortean ateratzen diren postuak eskuratzeko. Hori du elkarteak diru iturri nagusia.

Bertzetik, erbi ihiztariek inguruko herrietan kanpotarrei eskaintzen zaien ihizi baimen berak gure herrian ere ematea galdetu zuten. Orain arte, saratarrak auzo herritarrekin esku zabalak baldin baziren, hemendik goiti horien ihizi eskubidea murriztua izanen da. Horien herrian kanpotarrei onartzen zaien ihizi egun kopuru berdina izanen baitute Saran, ez gutiago, ez gehiago. Biltzarraren ondotik, ohidurari atxikiz, aperitifa eskaini zen eta bazkaria egin errugbi zelaian.

### *Internet gunea*

Saratarrek Internet balia dezaten gune berezia antolatu dute Apezetxean. 18 urte ukan behar dira eta 100 liberako karta erosi behar da. Bertzalde, atxeman informazioa paperez atera nahi duenak inprimagailua izanen du bertan. Haatik, papera norberak ereman behar du. Honetaz gain, trebatu nahi duenak formakuntza baten segitzeko posibilitatea badu. Internet gune hori gau eta egunez idekia da, astelehenetik igande arte.

XARETA

# Fanfarrea eta abesbatza Udaberriko Biraren barnean

**Margari eta Koro**

Zugarramurdi eta Urdazubin Udaberriko Birako ekintzetarako antolatuak diren bi saio ikusteko aukera izanen da. Zugarramurdin, maiatzaren 27an (igandea) «Ardanbera» fanfarrea arituko da kantetan eguerdiko 12etatik aitzina. Urdazubin, ekainaren 3an (igandea) «Ipar Doinua» abesbatzak emanaldia eskainiko du elizan goizeko 11tan.

### *Xaretako seinaleak*

Duela 5-6 urte Xaretalurraldeko herriek (Sara, Ainhoa, Urdazubi eta Zugarramurdi) elkarlanean aritzeko akordioa hartu zuten eta horrekin batera lurralde hauetara sartzen diren errepide guzietan harrizko seinaleak jartzea. Seinale hauek zonaldeko harri gorrian eginak dira eta metro terdiko altuera daukate. Zugarramurdiko hargina den Txomin Amorenak lantzen ditu eta gehienak jarriak badira ere, oraindik lana ez da finitua: azkeneko egun hauetan Urbiako kaskoan jarri dute bat eta bertzea Lizuniagan.

Bertzalde, aurtengoan ez dute Zugarramurdiko erretzaileek zikirorik prestatu Herri Urratsen, eguraldi txarra zela eta. Hurrengoan beharko!



# EZKONTZAK

**Victor Manuel del Campo Alonso** eta **Patricia Pellicer Perotxena**, Elizondokoak, apirilaren 21ean.

**Géraldine Blond** eta **Pepito Elorga**, Senpere eta Sarakoa, maiatzaren 7an.



# JAIOTZAK

**Naroa Galindo Leitza**, Leitzakoa, apirilaren 23an.

**Oihana Sarratea Jabalera**, Berakoa, apirilaren 21ean.

**Xiker Lizardi Artola**, Berakoa, apirilaren 28an.

**Jon Iriarte Mikelperizena**, Berakoa, maiatzaren 1ean.

**Asier Oskariz Ursuegi**, Elizondokoa, apirilaren 19an.

**Naiara Ariztia Azkarraga**, Azpilkuetakoa, apirilaren 25ean.

**Aitor Hualde Iribarren**, Legasakoa, apirilaren 24an.

**Ander Berasategi Elizondo**, Urrozkoa, martxoaren 20an.

**Zoé Prevost**, Sarakoa, apirilaren 26an.

**Lorea Zunda**, Sarakoa, apirilaren 27an.

**Ibai Arburua Pradere**, Sarakoa, martxoaren 27an.



# HERIOTZAK

**Presentacion Arburua Sanzberro**, Etxalarkoa Kalifornian, martxoaren 29an, 90 urte.

**Pablo Arangoa Astiz**, Leitzan, maiatzaren 6an, 87 urte.

**Juan Cruz Azpiroz Galtzagorri**, Iturengoa, maiatzaren 3an, 86 urte.

**Maria Concepcion Etxeberria Saldias**, Berakoa, apirilaren 28an, 82 urte.

**Ambrosio Hezurmendia Etxenike**, Azpilkuetakoa, apirilaren 26an, 84 urte.

**Ignacio Galarregi Mikelarena**, Elbetekoa, apirilaren 29an, 6 urte.

**Dorotea Gamio Etxenike**, Iruritakoa, apirilaren 29an, 80 urte.

**Martin Barrenetxe Landa**, Lekarozkoa, maiatzaren 6an, 89 urte.

**Salvador Arostegi Baratzeondo**, Zozaiakoa, apirilaren 29an, 86 urte.

**Ignacio Bergara Errandonea**, Arantzakoa, maiatzaren 2an, 80 urte.

BAZTANDARRA KOOPERATIBA
Baserritarren zerbitzurat
Tel: 948 453310 - Faxa: 948 453375
Ordoki Auzoa • ARIZKUN

gaztelu scl
iturgintza
kalefakzioa saneamendua gasa
☎ 948 510086 / 510156 • fax: 948 610656 • LEITZA

HERRIKO ETXEKO EDENTEGIA
CAFE DE LA MAIRIE
MAIXAN ETA VÉRONIQUE
SARA • TEL 0559542519

FUNERARIA ZERBITZUAK
Lesaka-Doneztebe
MALDAERREKA, S.L.
24 ordutako zerbitzua
Iruñea-Donostia-Irungo ospitaletatik edozein herritara trasladoak
Tfnoa: 948637404 • LESAKA
Tfnoa: 948450475 • DONEZTEBE

Salvador
AROSTEGI BARATZEONDO
Egun gogor hauetan gure ondoan izan zareten eta gure sentimenekin bat egin duzuen guziei, ESKER MILA.
FAMILIA

H. Lopez
iturgintza
Kalefakzioa
Gas Instalazioak
Iturgintza industriale
Ureztatze sistemak
Tel.: 948 45 21 26
Mug.: 637 34 99 44
NARBARTE

FUTBOLA

# Lehen aldiz Preferentera igotzea lortu du Berako Gure Txokoa futbol talde nagusiak

Maiatzaren 26an Gipuzkoako Erregionaleko txapeldun izateko finala jokatuko du

Maiatzaren 5ean Berako Matzada futbol zelaian Irungo Mariño taldearen kontra jokatutako partida 2-0 irabazi ondotik, Gipuzkoako Erregionaleko lehen mailako multzoko txapeldun izatea eta, honenbertzez, Preferentera igotzea lortu zuen Gure Txokoako mutilen futbol talde nagusiak. Oraindik bertze bi partidu ere bazituzten aukera hori gauzatzeko, baina lehendabizikoan ez zuten hutsik egin Miguel Dagerreren mutilek. Gisa honetara, denboraldi bikaina burutu dute, bi partidu bertzerik ez baitituzte galdu. Talderik golegileena izateaz gain, gol guttien jaso duena da.



**Historian lehen aldiz Gipuzkoako Preferentera igotzea lortu duen Gure Txokoako futbol talde nagusia. Bi partidu bertzerik ez ditu galdu aurten.**

Asteburu honetan jokatuko du ligako azken partida Matzadan eta ondotik, maiatzaren 26an, Erregionaleko lehen mailako txapeldun izateko finalean arituko da, bertze multzoko lehendabizikoaren kontra. Dagerre entrenatzaileak dioenez, *«inoiz ez gara final batean izan eta urtea borobiltzeko modu polita izanen litzateke irabaztea»*. Baina final horretan gertatzen dena gertatzen dela, historiarako denboraldia utzi du Gure Txokoak. Orain bi urte Erregionaleko bigarren mailatik igo eta joan den urtean, lehen maila hori kontzeko azken partidura arte borrokatu ondotik, aurten jaun eta jabe izan dira beratarrak.

| Jokalaria | | Adin |
|---|---|---|
| Ander Altzuri | A | [illegible] |
| David Moreiu | A | [illegible] |
| Angeliko Arrinbar | D | [illegible] |
| Imanol Oiartzabal | D | [illegible] |
| Gorka Ibargoien | D | [illegible] |
| Iñigo Altzugaren | D | [illegible] |
| Javier Tapia | D | [illegible] |
| Mikel Altzui | D | [illegible] |
| Oskar Urkido | D | [illegible] |
| Javi Garcia | D | [illegible] |
| Mikel Arrabea | E | [illegible] |
| Andoni Larrañaga | E | [illegible] |
| Felipe Saragueta | E | [illegible] |
| Joseu Iratzoki | E | [illegible] |
| Jose Luis Tapia | E | [illegible] |
| Patxiku Arbeta | E | [illegible] |
| Asier Larrañaga | Au | [illegible] |
| Angel Porbar | Au | [illegible] |
| Iñaki Iratzoki | Au | [illegible] |
| Carlos Porbar | Au | [illegible] |
| Iñigo Lasaga | Au | [illegible] |
| Jose Sebastiar | Au | [illegible] |
| Gorka Feito | Au | [illegible] |
| Eduardo Etxeberria | Au | [illegible] |
| Entren: Migel Dagerre | | |

## Migel DAGERRE *Gure Txokoako entrenatzailea*



### "Taldearen ilusioan oinarritu gara mailaz igotzeko"

**Joan den urtean, azken partidura arte maila mantentzeko borrokan eta aurten txapeldun, nagusitasun osoz... Zer aldatu da taldean?**
Jende aldetik ez du ia aldaketarik izan, jubeniletatik pasatu diren bi jokalari bakarrik. Nire ustez, jendearen ilusioan egon da aldaketarik handiena. Denboraldi hasera ona egin nahi genuen eta hori lortu ondotik, aitzinean mantentzeko ilusioa eta konfidantza izan dugu. Azkenean, denboraldia sekulan lortu ez zen igoerarekin borobildu dugu.

**Eta heldu den urtean Preferenten. Zer helburu izanen duzue?**
Preferente maila handia da. Gipuzkoako hern handienetako taldeak daude. Esperientzia handiko jokalariak aritzen dira eta ikasteko aunitz izanen dugu. Maila mantentzea lortzen badugu kontent izanen gara.

MENDIA

# Gailurra egin gabe itzuli da Sisha Pangma-Martiko espedizioa

## Eguraldi kaxkarrak ez die 8.027 metroko mendira igotzen utzi

Jabier Zubieta, Patxi eta Loro Pikabea eta Sabino Korta beratarrek eta Andoni Zulaika zestoarrak osatutako Sisha Pangma-Martiko mendi espedizioa Himalaiako 8.027 metroko tontorra zanpatu gabe itzuli da Euskal Herrira. Hasera-haseratik izan zuten eguraldi kaxkarrak eta elurrak ez zien behar bezala egokitzen utzi. Honela, maiatzaren haseran etxera itzultzea erabaki zuten Patxi, Jabier eta Andonik, Loro Pikabea eta Sabino Korta bertze aste batez gelditu ziren, Andorrako Oriol Rivas mendizalearekin. Dena den, Loro ez zegoen egoerarik onenean, erori baten ondorioz saihetsetan kolpea hartu baitzuen. *«Lehendabiziko kanpamenduraino igo nahi nuen, baina hiru orduz ibili ondotik, oinaze handia somatzen dut»* zioen Pikabea gazteak. Gailurra alpino eran egiten saiatzeko guttienez hiru lagun behar direla eta eguraldiak hobera egiten ez zuela ikusiz, bertze baterako uztea erabaki zuten hauek ere.



GOIKO

**Patxi Pikabea, Sabino Korta, Loro Pikabea goitian, Andoni Zulaika eta Jabier Zubieta beheitian. Oraingoan ezin izan dute zortzimilakoa menperatu.**

### JABIER ZUBIETA: «MENDIA BETI HOR EGONEN DA»

Bi urtez espedizio hau antolatzeko lanean aritu ondotik, kopetilun eta triste xamar itzuli ziren mendizaleak, baina senide eta lagunen ongietorria duela bi urte Gasherbrum-IIra igo zirenean bezain bero eta hunkigarria izan zen.

Jabier Zubieta mendizaleak espedizioaren balantzea egin zuen: *«Ezin da balantze hagitz ona egin, bueltа eman behar izan dugulakoz. Kontuak haseratik okertu ziren eguraldiarekin. Mendiak ez digu aukerarik eman, baina mendia beti hor egonen da»*.

Bertze horrenbertze uste zuen Patxi Pikabeak: *«Bi urtez lanean eta prestatzen aritu ondotik gogorra eta zaila da bueltatzeko erabakia hartzea. Gasherbrumen dena ezin hobeki atera zen, nahi bezala, baina oraingoan bertze aurpegia erakutsi digu mendiak. Eguraldia kaxkarraren ondorioz, moralak ere beheiti egin zigun»*.

Dena den, espedizikideek dioten bezala, *«mendira ailegatu eta gailurrera igotzea bertzerik ez balitz, ez luke xarmarik izanen»*.

Kontuak kontu, oraingoan ez da posible izan, baina denak onik eta gogoekin itzuli dira. Taldekideak ezagutuz, abudo bertze espedizioren baten berri emanen dute, dudik gabe. Hurrengoan beharko!

## BOTE PRONTON



### *Juan Carlos Garro*

Rotor System taldean ari den txirrindulari beratarra bigarrena da Espainiako Mendi Bizikleta Irekiko sailkapen orokorrean, maiatzaren 6an Avilan burututako proban laugarren izan ondotik. Heldu den astean, Munduko Kopako proba batean hartuko du parte Belgikan eta Coronas Sariko lasterketa ere eginen du Granadan. Negu partean ziklo-krosean hasteko intentzioa duela adierazi dio Garrok TTIPI-TTAPARI. *«Duela 5-6 urte probatu nuen eta berriz ere gogoekin nago»* dio.

### *Mindegia eta Peñagarikano maiatzaren 27an Donezteben*

Urrezko Aizkorako bigarren faseko azken saioa jokatuko dute Peñagarikano eta Mikel Mindegiak maiatzaren 27an Doneztebeko udal pilotalekuan. Saio honetan erabakiko da ekainaren 10ean Azpeitiko finalean izanen den bigarren finalista. Bertze multzoan, Nazabal edo Olasagasti sartuko da finalean, astearte honetan Eibarko saioan egin dutenaren arabera. Izan ere, Donato Larretxea ederki aritu eta biak ederki estutu badítu ere, biekin galtzaile suertatu da.

# AGENDA egunez egun

### UDABERRIKO BIRA

**ZUGARRAMURDI**

**Maiatzaren 27an,** igandea, «Ardanbera» fanfarrea arituko da karriketan eguerdiko 12etatik aitzinera.

**URDAZUBI**

**Ekainaren 3an,** igandea, «Ipar Doinua» abesbatzak emanaldia eskainiko du elizan goizeko 11etan.

### ERAKUSKETAK

**ETXALAR**

**Ekaina bitarte**

Iker Isasi margolari doneztebarraren koadroak ikusgai Herriko Ostatuan.

### KONTZERTUAK

**ELIZONDO**

**Maiatzaren 18an**

Kasinoan "BOL" (Lodosa).

**LEKAROZ-DONEZTEBE-LEITZA**

Leitza, Lekaroz eta Doneztebeko ikastetxeetako ikasleen emanaldiak, arratsaldeko 5,30etan:

**Maiatzaren 30ean**

Lekarozko Kiroldegian

**Maiatzaren 31n**

Doneztebeko Kiroldegian

**Ekainaren 1ean**

Leitzako Amazabal frontoian.

### MUSIKA

**TRIKITIXA TXAPELKETA**

Baztan, Malerreka, Bidasoaldeko IV. Trikitixa txapelketan izena emateko epea ekainaren 15ean akautuko da. 948 637 907 edo 657 931427 telefonoetara (Jone Elgorriaga) deitu behar da.

## TELEBISTAKO TXOKOA




# Haurrak, mugak, antzerkia eta telebista

Azken urteotan sortu den ekimen kultural garrantzitsu eta berritzaileenetakoa dugu Beran egunotan ospatzen ari den Mugaz Gain antzerki jaialdia. Jaialdi honen protagonistak gazteak izanagatik, bertze publikoengan ere badu eragina, batez ere gurasoengan sortu duen jakinmina ez baita nolanahikoa. Antzerkizale guziak ere adi ibiliko dira dudarik gabe. Horrexegatik aurten Lamixine BATek saio batzuk gehitu dizkio programa nagusiari, helduek ere haurren antzerkiaz goza dezaten.

Dena den, bertara joatea zaila suertatzen bazaizu, lasai egon, TTIPI-TTAPA TELEBISTAN Mugaz Gain jaialdiaren berri ematen ari baikara hasi zenez geroztik. Eta noski, hala eginen dugu ikuskizunak irauten bitartean. Elkarrizketak, iritziak, eta nola ez, antzerki obrak zuen etxeetaraino eramanez.

Badakizue, beraz, hau dena, albistegiaren barrenean, astelehenetik ortziralera arratseko 9etan.

Hala ere, zernahi arrazoirengatik orain ezin badituzue antzerkilan hauek ikusi, gogoan hartu, uztailean IKASTB saioan berriz ere Mugaz Gain jaialdian parte hartu duten eskualdeko ikastetxe guzien antzerki obrak emanen ditugula telebistan.



## DISKAK




*«Jo ta ke»*

### SU TA GAR

*GOR*

Inoiz izan den euskarazko heavy-rock taldearik garrantzitsuenetako batek bere abesti ezagunenak bildu ditu CD bikoitz batean. Guztira hogeita bat kanta dira, Amurrio, Bermeo eta Eibarren zuzenean grabatuak. Zuzenekoak izateak ez du kalitatea murrizten eta Eibarko taldeak bere kontzertuetan eskaintzen duen soinua ezin hobeki islatzen da diska honetan. «Mari» edo «Jo ta ke» bezalako kantuak aditzen ahal dira, bai, baina baita Sutagar taldearen diska bakar batean aditu ez diren kanturik ere –La Pollaren «No somos nada» kantuaren bertsioa bikaina–. Musika aditzeaz gain, diska bakoitzak ordenagailuan bideo interaktibo bat ikusteko aukera dago. Iban Zugarramurdi Arantzako bateriaren lanaren azpimarratzekoa da.

## BASERRIA

Datu Iturria: Nafarroako Gobernua



### ZERRIKIA

**Zerrikumea**
(19 kilo): 10.800 pta.

**Zerri gizena**
(95-100): 247 pta/k.

**Zerramak:**
158 pta./kiloa, bizirik.



### BEHIKIA

**Aretze gizenak:**
**Idixkoak: Pta/kg. Kanal**
**Extra** 445
**1.koa** 425
**2.koa** 405
**Urruxak: Pta/kg. Kanal**
**Extra** 455
**1.koa** 435
**2.koa** 415

Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg.

**Aretze ttikiak**
(15 egun ingurukoak):
**Nabarrak:** urruxak 28.000 eta idixkoak 21.000 Pta.
**Mestizoak:** urruxak 35.000 eta idixkoak 30.000 Pta.

**Zaldikoak: Pta/k**
Sortuberriak: 465-485
Zaldi-behorrak: 295-335

**Bildotsak: Pta/k**
6-8 kilokoak: 900-950
8-10 kilokoak: 750-800

## JAKIN BEHARREKOAK



# Energia aurrezteko aholkuak

**Europako bertze herrialdeekin alderatuta hemen energia gutiago gastatzen dugu etxea berotzen. Hala ere, gero eta etxetresna gehiago erabiltzen dugu eta etxeetako energia kontsumoa izugarri goitu da.**

Arras garrantzitsua da kanpoko isolamendua ona izatea. Komenigarria da leihoetan bi kristal jartzea. Ziur egon behar dugu beroa ez dela alferrik galtzen. Pertsianek eta gortinek ere beroa gordetzen lagunduko digute. Hormak, sabaiak eta zoruak isolatzeko hainbat material erabiltzen dira: artile minerala, beira-zuntza eta kortxoa.
Berokuntzari dagokionez, komeni da termostatoa izatea. Termostatoak tenperatura erregulatzeko balio du. Berdin dio berokuntza-mota zein den. 10 minutu nahikoa da etxea aireztatzeko.
Etxean berogailu zentrala badaukazu, nork bere faktura ordaintzeko eska dezakezu. Horrela, besteek xahutzen dutena ez duzu zuk ordaindu beharko.

### Etxeko elektragailuak

Etxeko tresnei begira, hobe da kontsumo txikiko tresnak erostea. Arropa eta ontzi-garbigailuek kontsumitzen dute gehien, ura berotu behar dutelako. Erosi baino lehen, komenigarria da zenbat ur-sarrera dituzten begiratzea. Berogailu arruntaren ura erabiltzea posible bada, hobe (berogailuak tresnaren motorrak baino gutxiago kontsumitzen duelako).
Hozkailuan ez da komeni gauza beroak sartzerik, eta ateko gomak noizean behin aldatu. Hozkailuan ez da hormarik sortu behar, bertzela motorrak bi aldiz gehiago lan egin beharko du lan.
Azkenik, erabil itzazu kontsumo ttikiko bonbilak, nahiz eta garestiagoak izan. Gehiago irauten dute eta elektrizitate gutti gastatzen dute. Beste alde on bat ere badute bonbila hauek: karbono dioxido erradiazio gutti igortzen dute.
Ikusten duzuenez, aholku errazak dira. Eta dirua aurrezteko ez ezik, natura zaindu eta gordetzeko ere balio dute.

EKA
EUSKAL HERRIKO KONTSUMITZAILE-

## LIBURUAK




*100% BASQUE*
**ITXARO BORDA**
*SUSA*

Zuberoako Oragarretar idazleak berrogei istorio labur bildu ditu bere zazpigarren eleberrian. Istorio guztiak, aurrenekoa eta azkenekoa izan ezik, edozein ordenatan irakur daitezke. Istorio bakoitzean Zen filosofiaren oharpen bat doa. Ia gauero Maule-Baiona joan-etorrian dabilen emakume arduratua da nobelako pertsonaia nagusia. Liburuko pertsonaia gehienak Iparraldeko pertsonaia tipikoak dira. Gasnaren bideak edo gure artzain kulturalak lotzen ditu guztiak, Itxaro Bordak ironiaz azaldu duenez gasna *«obsesio kultural kolektiboa»* baita Iparraldean. Hizkuntzari dagokionean ere, saiatu da Itxaro Borda zer edo zer interesgarria eskaintzen: euskara barrokoa, alegia euskara batua zein librea, hitz jokoz eta lehengo idazleen erreferentziaz jositako hizkera. Ironia eta gaiztakeriaren bidez gure ohizko manikeismoarekin hautsi nahi izan du Itxaro Bordak liburu honetan.

koa 2

# AGENDA
## egunez egun

**KONTZERTUAK**

**ETXALAR**
**Maiatzaren 19an**
"Los Rossis" Herriko Ostatuan gaueko 10etan.

**BERA**
**Maiatzaren 25ean**
"Mal de Ojo" Pui ostatuan, arratseko 10.30etan.

**KULTUR ASTEA**

**LEITZA**
**Maiatzaren 18tik 27ra**
XXIII. Kultur Astea: hitzaldiak, antzerkia, kirola, kontzertuak, diapositiba emanaldiak, koadrila arteko jokoak.

**GAZTE EGUNA**

**LESAKA**
**Maiatzaren 19an**
Pilota eta mus txapelketak, kontrol sozialari buruzko solasaldia, kalejira, afaria eta kontzertua.

**GAUPASAK**

**ELIZONDO**
**Maiatzaren 19an**
Antxitonea trinketean, IMUNTZO eta BELOKI taldearekin kontzertua, gaueko 12etarik aitzin. Garagardo Besta ere ospatuko da eta hainbat opari banatuko dira.

**GUARDIAKO BOTIKAK**
**112 TFNORA. DEITU**

**Maiatzaren 14tik 20ra**
Etxalar, Sunbilla, Elizondo (Iturralde), Leitza eta Goizueta.

**Maiatzaren 21etik 27ra**
Aranza, Ituren, Irurita eta Goizueta.

**Maiatzaren 28tik ekainaren 3ra**
Igantzi, Narbarte, Elizondo (Lezaun), Urdazubi eta Goizueta.

# MERKATU TTIKI

**ZEIN ERRAZA DEN ZURE ANUNTZIOA HEMEN JARTZEA**

**00-34 948 63 11 88**

Sail honetan iragarkia jartzeko 1.000 pezeta ordaindu behar da ttipi-ttapa leiotxetan ere agertuko da (nahi izanez gero argazkia ere) 1.000 pezetak Rural Kutxako 3008 0060 53 0200015290 kontuan justifikantea ttipi-ttapara igorri faxez edo postaz.

**...ETA GAINERA, ZURE BERRI ESKUALDEKO ETXE GUZIETAN IZANEN DUTE!!**

**ETXEBIZITZAK**
- 101. Saldu
- 102. Erosi
- 103. Errentan emateko
- 104. Errentan hartzeko
- 105. Etxe konpartituak
- 106. Bertzelakoak

**GARAJEAK/LOKALAK**
- 107. Saldu
- 108. Erosi
- 109. Errentan emateko
- 110. Errentan hartzeko
- 111. Bertzelakoak

**LURRAK/ORUBEAK**
- 112. Saldu
- 113. Erosi
- 114. Errentan emateko
- 115. Errentan hartzeko
- 116. Bertzelakoak

**ZERBITZUAK**
- 201. Hargin/Igeltseroak
- 202. Pintoreak
- 203. Elektrizistak
- 204. Iturginak
- 205. Zurginak
- 206. Mendi lanak
- 207. Garraioak
- 208. Bertzelakoak

**LANA**
- 301. Eskariak
- 302. Eskaintzak

**IRAKASKUNTZA**
- 401. Eskaintzak
- 402. Akademiak

**MOTORRA**
- 501. Salerosketak
- 502. Tailerrak

**ANIMALIAK**
- 601. Emateko
- 602. Salerosketak
- 603. Klinikak

**DENETARIK**
- 701. Galdu / aurkituak
- 702. Salerosketak
- 703. Bertzelakoak

**HARREMANAK**
- 801. Agurrak

## ETXEBIZITZAK

### 101 SALDU

**BULDAIN**
Leitzan 3 pisu salgai, horietako 2 igogailuarekin. Garajeak eta lokal komertzialak salgai.

**ADOS**
- Eskaera handia dagoenez, bordak, baserriak, lur-eremuak, bajerak etab. erosi nahi dira.
✆ 948 451 841
607 978 656

**ADOS**
BERA. Lur-eremua erosi nahi dugu pisuak edo etxeak egiteko.
✆ 948 451 841 • 607 978 656

**LESAKA.** Antoiu karrikan 85 m²ko pisua salgai. ☎ 948 637 333 (eguerdietan eta 19etatik aitzinera).

**BERA.** 79 m²ko pisu mobleztatua salgai. ☎ 948 630 943.

**IGANTZI.** 90 m²ko pisua salgai. Hiru logela, egongela, sukaldea eta komuna. ☎ 687 950 373.

**IRUÑEA.** 80 m²ko pisu berritua salgai Milagrosa auzoan. 3 logela eta kalefakzioa. ☎ 948 243 749.

**ELIZONDO.** Alkulegi karrikan pisua salgai. ☎ 948 580 880 (eguerdi eta gauetan).

**ELIZONDO.** Aldudes karrikan pisua salgai. Bista ona eta eguzkitsua. Egoera onean. ☎ 948 452 125 (gauetan).

## ETXEBIZITZAK

### 103 Errentan eman

**BERA.** Pisu mobleztatua errentan emanen nuke. ☎ 948 630 297.

YAMAHA
STIHL
HUSQVARNA
TATANKA
LESAKA

## GARAJEAK

### 107 Saldu

**BERA.** Eztegara karrikan 40 m²ko bajera salgai. ☎ 948 630 363.

## GARAJEAK

### 109 Errentan eman

**BERA.** 130 m²ko garajea errentan emateko Bidasoa karrikan. ☎ 948 630 865 (Toñi).

## LANA

### 301 Eskariak

**Neska ukraniarrek** jatetxe edo hoteletan edo adineko pertsonak zaintzen lan eginen lukete. ☎ 948 630 387.

Alicia T.
OFIZIALE
SERVI-LAN

ARANTZA
ZURGINDEGIA
Klase guztiak
Ortzaiz ✆ 948 4

**Neska batek** ... ko Ituzke ... tzietan. Haur ... dakoa eta esperientzia ... ☎ 636 901 283.

**Goizetan** 5 ordu ... nen nuke. ☎ 696 ...

**ADOS**

**SUNBILLA: 26 etxe elkar atxikiak**

**Babes Ofizialeko 12 etxebizitza**
90 m² + 40 m² garaje + lur zatia = 18.500.000 Pta.
90 m² + 40 m² garaje = 15.164.945 Pta.

**14 etxebizitza modalitate librean**
106 m² + 50 m² garaje + lur zatia = 23.900.000 Pta.



Hasiak gara erreserbak egiten.

Argibideak:
✆ 948 451 841
607 978 656

**LEITZA, GOIZUETA, ARESO eta ARANOko GIZARTE ZERBITZUAREN MANKOMUNITATEA**

LANPOSTUA BETETZEKO DEIALDIA

Leitza, Goizueta, Areso eta Aranoko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuaren Mankomunitatearen lehendakariak, 2001eko ... tzaren 9ko ebazpenaren bitartez ondoren deskribatzen ... lanpostua betetzeko deialdia onartu zuen:

**A.- Lanpostua:** Babesturiko Giza lan Programaren ...
**B.- Kontratuaren iraupena:** 9 hilabete.
**C.- Maila:** C maila.
**D.-Baldintzak eta aurkeztu beharreko dokumentazioa:** ... komunitatearen egoitzan (Leitzako Osasun Etxean) ... netik ostiralera, goizeko bederatzietatik eguerdiko ... bitarte.
**E.- Proposamenak aurkezteko azken eguna:** 2001eko ... tzaren 23a (eguerdiko hamabiak).
**F.- Probak burutzeko eguna:** 2001eko maiatzaren 28 ...
**G.- Lanean hasteko eguna:** 2001eko maiatzaren 30a ...

Lehendakariak,

Maite SAROBE MITXELENA

...ordenagai-
...620 337
...948 453 006.

## ...Eskaintzak

...batbehar da aste-
...taberna lan egite-
...619 450 249.
...zerbitzariak
...-bitzaileak behar
...948 635 000.
...ostatu batean lan
...bi neska behar dira.
...bakarra euskaraz
..., eta praktika baldin
...hobe. 943 623 130
...eguerdi eta arratseetan, Iña-
...
...behar da egun
...artzeko. 687
...344.
...behar ditu Kontsei-
...Hizkuntza Eskubideen
... Maiatzaren
...deitu. 943
...200.

Etxalarko jatetxe batean **kamarera** behar da asteburuetarako. ☎ 650 409 246.

**MOTORRA**

## 502 Tailerrak


BOAN TAILERRA
CITROEN Banatzailea
AUTO BERRIEN ERAKUSKETA ETA SALMENTA
☎ 948 63 06 23 • BERA

GANIX
Tailerrak
... • BERA
IBILGAILUEN MEKANIKA ETA ELEKTRIZITATEA
FIAT Zerbitzua

MENDAUR MOTOR
☎ 948 450333 • DONEZTEBE
Bigarren eskuko kotxeak:
Ssangyong Muso TDi 5 ate,
Vectra TD, Nissan Patrol,
Clio D.
...


**MOTORRA**

## 501 Salerosketak

**Ford Escort** TD salgai, 5 urtekoa. ☎ 948 630 999.

**Volkswagen Golf** III GT salgai. NA-AN, 70.000 km eta 5 urte, egoera onean. ☎ 656 763 186.

**ANIMALIAK**

## 602 Salerosketak

Arantzan **bi aretze betizu** salgai, haragitakoak. ☎ 948 634 180.

**DENETARIK**

## 701 Galdu-aurkituak

Beran more koloreko sakeleko **telefonoa** galdu dut. ☎ 948 630 342.

**DENETARIK**

## 702 Salerosketak

300 litroko **esne tankea** salgai. ☎ 948 610 847.

**Paketadora** salgai. ☎ 948 630 446 (eguerdi eta arratsetan).

Pioner markako **CD-erreproduktorea** salgai. 25 CDrentzat tokia, eta berria da (10 hilabete). 30.000 pta. ☎ 948 599 105.

Aluminiozko **mendiko bizikleta** salgai. ☎ 610 221 528 edo 948 638 144.


LODITASUNA
EDAN ETA ARINDU!
☎ 948 13 11 36


### ETXALARko UDALA
AYUNTAMIENTO DE ETXALAR

**HERRIKO ETXEAREN FATXADAK ETA TEILATUA BERRITZEA**

- **Adjudikazio mota:** Prozedura negoziatua prentsan iragarritakoa.
- **Kontrataren aurrekontua:** 4.146.903,- pta. (BEZa barne).
- **Egiteko epea:** Bi hilabete, adjudikazioaren jakinarazpen egunetik hasita.
- **Proposamen irekitzea:** Biharamunean arratsaldeko 7:30etan Etxalarko Udaletxean.
- **Aurkeztu beharreko agiriak:** Baldintza administratiboen pleguan ageri direnak.

**Memoriak, baldintza tekniko eta administratiboak, eta proposamen eredua lizitatzaileen eskura daude herriko idazkaritzan.**

Etxalarren, 2001.04.02

ALKATEA, Miguel Mª Irigoien


KULTURKARI
Inprenta lanak egiten ditugu
• Kartelak
• Boletoak
• Faktura taloiak
• Bisita txartelak
• Aldizkariak
• ...
☎ 948 63 11 88


### URROZko UDALA
AYUNTAMIENTO DE URROTZ

**URROZKO HERRIKO OSTATUA ALOKATZEKO ENKANTE PUBLIKOA**

- **Xedea:** «Urrozko Herriko Ostatua alokatzea».
- **Esleipen modua:** Enkante publikoa.
- **Hasierako prezioa:** 20.000 pezeta hilabeteko.
- **Proposamenak aurkezteko epea:** 2001eko maiatzaren 30ean, eguerdiko 12ak arte Urrozko Udaletxean.

**Baldintza Plegua, interesatuen eskura egonen da Udal bulegoetan.**

Urrotzen, 2001.eko maiatzaren 8an

ALKATEA, Mª Jose Larraioz Ariztegi

### OIZko UDALA
AYUNTAMIENTO DE OITZ

**LARRE-HERRI LURBERRIA APROBETXATZEKO DEIALDIA**

- **Xedea:** Larre-herri deitutako lurberriaren aprobetxamendua.
- **Lurberri honek 11 Hektarea ditu eta ardiak bakarrik sartuko dira.**
- **Interesatuek, plegu baldintza Udal Idazkaritzan eskura dezakete.**
- **Eskaerak egiteko azken eguna:** 2001eko maiatzaren 24 eta arratsaldeko 15:30ak arte.

Oitzen, 2001.eko maiatzaren 3an

ALKATEA, Alberto San Migel Mindegia

GRUPO TANATORIO TALDEA

# IRACHE

GESTIONES FÚNEBRES DEL NORTE, S.L.

## DONEZTEBEKO SAN PEDRO BEILATEGIA

FUNERARIA MALDAERREKA, S.L.
GESTIONES FUNEBRES DEL NORTE, S.L.

## GRUPO IRACHE TALDEA

**Beilategia**
**Hileta zerbitzua 24 orduz**
Nafarroa eta Gipuzkoako ospitale guztietatik garraioak

Ameztia, 13 behea
**Doneztebe (Nafarroa)**
**Tfnoak: 948 637 404 • 948 451 758 • 900 704 704**

Maiatzaren 24an irekiko da





# ANTXITONEA

Jatetxea - Ostatua
Hotela - Trinketea

**Orain 25 gelako hotela zabalik**

Braulio Iriarte karrika • ELIZONDO • ✆ 948 581 807 • ✆ 948 581 853

# MUEBLES AMETS

**Sarrera BERAtik da**

*Alkaiagako industrialdean*
*Sastrin karrika, 3.2 - 3.4*
**31789 LESAKA**
*Tfnoa. 948 630 537*
*Fax. 948 631 443*

*Larunbat arratsaldetan irekia*









**4.000 m²ko erakusketa mobleak ikusteko**






**Sukaldeak**
**Egongelak**
**Logelak**
**Bainugelak**